

[Escribir texto]

Euskararen Normalizazioa Bizkaiko Foru Aldundian

Euskara ofizialkide izatetik ofizial izatera

Amaia Ugarteburu Iturbe
2010eko ekaina

Laburpena

Lan honen helburua Bizkaiko Foru Aldundiak beren langileen artean euskararen normalizazioa lortzeko abian jarritako planak aztertzea da. Ez dira aintzat hartu Aldundiak euskara sustatzeko garatzen dituen bestelako programak.

Honetarako, orain arteko lau plangintzaldien (azkena oraindik ere abian dago) erreposoa egingo dut, eta, ondoren, , egindakoaren balorazioa eta aurrera begira hobetzeko balio lezaketen zenbait proposamen egin ditut. Gai honetan, aditua ez banaiz ere, aritua banaiz eta: bai hizkuntza-trebakuntzan, irakasle gisa; bai euskararen erabilera sustatzeko planean ere, trebatzaile lanetan.

Plangintzaldien arteko alderaketa errazago izan dadin, antzeko eskemara ekartzen saiatu naiz:

1. Planaren helburu nagusiak
2. Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak
3. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak
4. Hizkuntza gaitasuna: Jarduera-plana
Hizkuntza trebakuntza
Euskararen erabilera sustatzeko plana

5. Betetze-egoera

Horretarako plangintzaldi amaieran zein hasieran Aldundiak eginiko txostenetako datuak jaso eta berorien balorazioa egin dut. Daturik esanguratsuenak aipatzen saiatu naiz; txostenetan beste zenbait datu edota informazio ere ageri den arren.

Betetze-egoerari dagokionez, ez dago datu handirik: gehien bat zenbatak betetzen duen eskatutako hizkuntza eskakizuna edo erabilera sustatzeko planean zenbatak hartu duen parte. Zaila egin zait, datu horietan oinarrituta, proposamen berriak egitea. Hala ere, zenbait hobekuntza egin daitezkeelakoan, neure harri-koskorra jarri dut.

Aurkibidea

Sarrera.....	5
I.plangintzaldia (1990-1995).....	6
Planaren helburu nagusiak.....	6
Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak.....	6
Hizkuntza gaitasuna: Jarduera plana.....	8
Betetze-egoera.....	9
II.plangintzaldia (1999-2002).....	12
Planaren helburu nagusiak.....	12
Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak.....	12
Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak.....	14
Hizkuntza gaitasuna: Jarduera plana.....	14
Planaren jarraipena.....	16
Betetze-egoera.....	16
III.plangintzaldia (2003-2008).....	23
Planaren helburu nagusiak.....	23
Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak.....	23
Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak.....	25
Hizkuntza gaitasuna: Jarduera plana.....	28
Betetze-egoera.....	30
IV.plangintzaldia (2009-2013).....	36
Planaren helburu nagusiak.....	36
Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak.....	37
Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak.....	39
Hizkuntza gaitasuna: Jarduera plana.....	41
Hizkuntza Normalizazioko Batzorde Nagusia.....	42
Langileen artean egindako inkesta.....	43
Balorazioa.....	44
Xede nagusiak eta helburuak.....	44
Atal elebidunak.....	44
Derrigortasun indizea/derrigortasun datak.....	46
Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak.....	48
Hizkuntza gaitasuna: Jarduera plana.....	51
Balorazio orokorra.....	53

Azken gogoetak.....	59
Abiaturuak.....	59
Planifikazioa.....	59
Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak.....	60
Aldaketan eragin dezaketen aldagaiak.....	61
Informazio iturriak.....	63

Sarrera

Euskararen normalizazioa helburu hartuta

Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, euskararen erabilera arauzkotzekoa, indarrean sartu zenean hasi zen administrazio publikoak ofizialtasun bikoitzari egokitzeko prozesua. Lege horretan ezarrita dago herritar guztiek dutela eskubidea Herri Administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Lege horren arabera, herri aginteen betebeharra da eskubide hori mugarik edo trabarik gabe bete dadila bermatzea.

Hori horrela, EAEn Administrazioaren hizkuntza plangintzaren oinarria izan den 6/89 Legea, uztailearen 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa, onartu zen. Legeak honela dio bere idazpuruan, 97. atalean, 1. puntuan: «*Euskara eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan*». Horretarako, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak lanpostuei hizkuntza eskakizun bana atxikitzeko sistema ezarri zuen. Sistema hori orokorra da administrazio osoarentzat.

Bizkaiko Foru Aldundian 1988an ekin zitzaion hizkuntzaren normalizazioari; orduan hasi zen hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzen eta, aldi berean, langileen euskalduntze eta alfabetatze planak antolatu ziren.

Aipatutako 6/89 Legea garatzera dator 224/89 dekretua, urriaren 17koa, Euskal Autonomia Elkarteke Herri Administrazioetan Euskararen Erabilera Normaltzeko Plangintza arautzen duena. Normalkuntza bideak arautzeari ekin zion, hizkuntza eskakizunen kopurua eta edukia, horiek ezartzeko bidea eta, era berean, administrazio-atal eta kate elebidunak finkatzeko bideak erabakiz.

Dekretu horrek 1990eko uztaileko finkatu zuen plangintzaldien hasiera data; baina Bizkaiko Foru Aldundian 1992ko uztailean hasi zen, lanpostuen balorazioa egin eta hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun datak jarri ondoren.

1. I. plangintzaldia (1990-1995)

Esan dudanez, praktikan ez zen 1992ra arte hasi eta dekretuak 95era arteko plangintzaldia aurreikusten bazuen ere, 97ra luzatu zen.

1.1. Planaren helburu nagusiak

Plan honek, gainontzeko planek bezala, administrazioaren hizkuntza normalizazioa lortzea zuen xede nagusi: benetako elebitasuna lortzea, bestela esanda. Horretarako, orduan zegoen egoerari erreparatuta, administrazioaren langileen hizkuntza trebakuntza hartu zen helburu ia bakartzat eta horretara bideratu ziren baliabide eta bitarteko guztiak.

Hala ere, Foru Aldundiaren langileek hizkuntza eskakizuna egiaztatzeak ez zuen, berez, eguneroko lanean komunikatzeko euskararen erabilera bermatuko. Beraz, helburua lortzeko, aurreragoko planetan argiago ikusiko dugunez, euskararen erabileraren normalizazioan bestelako jarduerak aztertu beharko ziren.

1.2. Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak

Atal elebidunek beraiei dagozkien funtzioak erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan bete ditzakete. Hortaz, atal hauetan euskara zerbitzu eta harreman hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere bada; ondorioz, atal horietako langile guztiek, edo, ia guztiek, beren zereginak euskaraz egiteko gaitasun nahikoa izan behar dute.

Administrazio atal elebidunak izendatzea normalizazioan urrats garrantzitsua izan zen.

Administrazio atal elebidunak

Plangintzaldi honetan Bizkaiko Foru Aldundian zenbait atal elebidun izendatu ziren:

1. Diputatu Nagusiaren Idazkaritza Nagusia
2. Nekazaritza Saila
3. Gizarte Ongizate Saila
4. Kultura Saila
5. Ogasuneko 5 zerbitzu eta beste 5 sailatal
6. Lehendakaritza Sailean (zerbitzu bat eta sailatal bat)
7. Ekonomi Sustamen Sailean (zerbitzu bat eta 2 sailatal)

Derrigortasun datak (d.d.)

Uztailaren 92an hauek ziren lanpostuei, hizkuntza-eskakizunei eta derrigortasunei buruzko datuak:

Lanpostuak guztira	2907
Derrigortasun datadunak (d.d.)	779

Derrigortasun indizea	%26,79
-----------------------	--------

Derrigortasun indizeak adieraziko digu derrigorrezko eskakizunen portzentajea; indize hau erroldako datuen arabera kalkulatu da.

Derrigortasun datak hizkuntza eskakizunak kontuan hartuta:

1 H.E.	53 lanpostu
2.H.E.	476 lanpostu
3.H.E.	243 lanpostu
4.H.E.	7 lanpostu
GUZTIRA	779 lanpostu

Taula honen arabera derrigortasun data zuten gehienei 2.H.E. edo gutxiagoko maila eskatzen zitzaizkien: lanpostuen % 67,90. Hurrengo aldietan, ordea, zalantza egin zen 2.H.E. horrek zenbaterainoko gaitasuna bermatzen zuten; ondorioz, 3.H.E. eskatzen hasi zen lanpostu askotan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

SAILAK	LANPOSTUAK GUZTIRA	Proposatutako d.d.	% sailean
Idazk. Nagusia	12	7	%58,33
Nekazaritza	310	89	%28,71
Gizarte Ongizate	158	50	%31,64
Kultura	213	81	%38,03
Ogasuna	922	364	%40,02
Herri Lanak	435	28	%6,44
Lehendakaritza	599	92	%15,36
Ekonomi Sustapena	85	33	%38,82
Ingurumena	94	17	%18,08
Garraioak	44	11	%25
Hirigintza	35	7	%20
GUZTIRA	2.907	779	%26,79

Ogasuna, Kultura eta Ekonomi Sustapeneko datuak begiratu ikusten da derrigortasun data zuten lanpostuak %38-40 artean zeudela; Herri Lanak, Lehendakaritza, Ingurumena, Hirigintza eta Garraioak sailetan derrigortasun datadunen portzentajea ez zen derrigortasun indizera ere ailegatu.

1.3. Hizkuntza-gaitasuna: Jarduera Plana

Epe honetarako, plan honen lehen helburua lanpostuan derrigortasun data zuten foru langileen hizkuntza trebakuntza bermatzea zen. Lehentasun osoa izan zuten derrigortasun data 1995 baino lehenago zutenek, eta hauen ostean, administrazio-atal elebidunetakoek eta goragoko eskakizuna zutenek (aurrekontuen arabera); beti ere izaera finkozko harremana zuten foru langileek.

Hizkuntza-trebakuntza

Trebakuntza honetarako Hizkuntza Normalizaziorako Sailatalak programa eta material didaktiko bereziak sortu zituen. Bestalde, aipagarria da, hizkuntza eskakizunak lortzeko ohiko prestakuntzaz gain, beren lanpostuari zegokion eskakizuna egiaztatua izan eta beren zeregin nagusietako bat jendea hartzea edo informazioa ematea zuten foru langileentzat, bizkaieraren ulermenerako ikastaro osagarri bat aurreikusi zela; horretan, lehentasuna izan zuten euskaldun eskualdeetan kokatutako bulegoetan aritzen zirenek.

Langile bakoitzari ordu kreditu bat jarri zitzaion bere lanpostuari zegokion eskakizunaren arabera; eta lan-baldintzei egokitutako ikastaroak eskaini ziren:

- barnetegiko ikastaroak
- ikastaro trinkoak (eguneko 5 eskola ordukoak)
- alfabetatze ikastaro trinkoak
- goizez eta arratsaldean lan egiten duten langileentzako ikastaroak (eskakizun altuenak, eta, beraz, prozesu luzeenak zituzten langile hauek ikas-prozesuan lana uzteko zuten zailtasunengatik, ikastaro bereziak antolatu ziren: egunean bi ordu eta lau asterik behin eguneko 5 orduko trinkoa)
- egunean bi orduko ikastaroak
- udako ikastaroak

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Euskararen erabilera plana 1996an hasi zen, ikusita erabilera normalizatzeko hizkuntza eskakizunak lortzeaz gain, bestelako ahaleginak egin behar zirela. Lehen saiakera Nekazaritza Sailean izan zen. Sail horretan egokitzat jo zen erabilera-plan bat martxan jartzea, bertoko hizkuntza-egoera kontuan hartuta: batetik, uste zelako sail honekin harremana zuten herritar askok euskara egingo zutela; eta, bestetik, bertan euskara lan zein zerbitzu-hizkuntza gisa erabiltzen zuten euskaldun zahar batzuk zeudelako. Euskaldun zahar horiek erabilera hedatzeko aktibo izan zitezkeela pentsatu zen. Berauen bitartez, euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza modura erabiltzen ez zutenen artean euskararen erabilera indartu nahi izan zen, euskara erabiltzeko gai zirela ikusaraziz, eta, hartara, euskaraz zuzentzen zitzaizkien herritarrei zerbitzu hobea eskainiko zirela.

Horretarako, zenbait talde antolatu ziren, atal edo zerbitzu bereko pertsonen osaturikoak. Astean bitan biltzen ziren taldeok, eta bilera horietan interes orokorreko gaiak eta eguneroko lanarekin zerikusia zuten gaiak aztertzen ziren, ahoz eta idatziz; bizkaiera ere lantzen zen (ahozkoaren ulermena) herritarrekin zituzten harremanen arabera.

1.4. Betetze-egoera

1999ko otsailaren 26an hauek ziren datuak:

Lanpostuak guztira	2879
Derrigortasun data duten lanpostuak	729
Derrigortasun indizea	%25,32

Derrigortasun datak hizkuntza eskakizunak kontuan hartuta:

1.H.E.	35 lanpostu
2.H.E.	456 lanpostu
3.H.E.	233 lanpostu
4.H.E.	5 lanpostu
GUZTIRA	729 lanpostu

Sailen araberako banaketa:

SAILAK	1992		1999		
	d.d.	%sailean	d.d.	% sailean	
Nekazaritza	89	%28,71	76	%24,60	↓ 4,11
Gizarte Ekintza	50	%31,64	48	%28,40	↓ 3,24
Kultura	81	%38,03	83	%38,60	≈
Ogasuna	364	%40,02	340	%34,75	↓ 5,27
Herri Lanak	28	%6,44	23	%6,86	≈
Lehendakaritza	92	%15,36	96	%15,60	≈
Ekonomi Sustapena	33	%38,82	31	%36,47	↓ 2,35
Ingurumena	17	%18,08	17	%18,28	≈
Garraioak	11	%25	10	%22,72	↓ 2,28
Hirigintza	7	%20	5	%13,88	↓ 6,12
GUZTIRA	779	%26,79	729	%25,32	↓ 1,74

Ikusten dugunez, arrazoi bat edo bestea tarteko, ez ziren hasieran jarritako helburuak bete. Edozein kasutan, 2. plangintzaldian ikusiko dugunez, urte horretako uztailean egoera bestelakoa izango zen.

Azter dezagun orain derrigorrezko hizkuntza eskakizuna zuten lanpostu horietan zeudenetik zenbatek egiaztatu zuten zegokion maila (1999ko otsailaren 26ko datuak).

DERRIGORTASUN DATA ZUTEN LANPOSTUAK	729	
Egiaztatu zutenak	534	73,25%
Egiaztatu ez zutenak	91	12,48%
Lanpostu hutsak	104	14,27%

Emaitzok ikusita pentsa dezakegu hasierako helburua ez zela bete; baina gauzak ez dira pentsatu bezain ilunak. Badira zenbait datu kontuan izatekoak.

Batetik, derrigortasun datarik ez zuten zenbait titularrek ere hizkuntza eskakizunen bat egiaztatua zuten:

1. H.E.	52 langile
2. H.E.	120 langile
3. H.E.	88 langile
4. H.E.	4 langile
Guztira	264 langile

264 langile horien artean 191k lanpostuari zegokion hizkuntza eskakizuna zuen lortua. Bestetik, kontuan hartu behar dugu 104 lanpostu hutsik zeudela eta, teoriarik behintzat, horiek betetzen zituzten langileek ezarritako hizkuntza eskakizuna bete egin behar zutela. Beraz,

534 (egiaztatu zutenak)
+ 191 (derrigortasunik izan ez arren egiaztatua zutenak)
725 (%25,18)

Lortu beharreko %25,32tik oso gertu; honi gehituz gero 104 (lanpostu hutsak), ateratzen zaigun kopurua 829 da, hau da, %28,79.

Gainera, lanpostuari zegokion hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez zuten 91 langile horien artean 40k eskakizunen bat egiaztatua zuten (33 langilek eskakizun bat baxuagoa eta 6k bi baxuagoa) eta beste batzuek euskalduntze prozesuan jarraitzen zuten.

Jarduera Plana

Hizkuntza-trebakuntzaren balantzea

Ez dut honetaz inolako daturik aurkitu.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balantzea.

Esan dudanez, Nekazaritza Sailean hasi ziren plan honetan lehen urratsak ematen; aldi honetan hogeita hamarren bat langilek hartu zuten parte.

Ahaleginak ahalegin, 2000. urtean, bertan behera geratu zen saiakera hau: ez zegoen benetako konpromisorik eta langileek ez zuten planaren helburuarekin bat egin (euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza bezala hedatzea). Planaren helburua ere orokorregia zen; ez zen zehaztasunik egin: euskara gehiago erabili, baina noiz, norekin, zein egoeratan... Ez zen konpromisoen betetze-maila neurtzeko tresnarik ere jarri.

2. II. plangintzaldia (1999-2002)

86/1997 Dekretua argitaratzean, 1997ko apirilean, hasi zen II. Plangintzaldia. Bizkaiko Foru Aldundiak 1998ko azaroaren 2an jaso zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren jakinarazpena: II. plangintzaldian nahitaez bete beharreko derrigortasun indizea %34,12koa izango zen. Aurretik esan dut, jada, indize honek ezarriko duela zein den derrigorrezko eskakizunen portzentajea eta erroldan jasotako azken datuak erabiltzen direla berau kalkulatzeko (plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen errolda).

Bete beharreko legezko izapide guztiak bete ondoren, Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren 2. plangintzaldia (1999-2002) onartu zuen Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 1999ko uztailaren 13an.

2.1. Planaren helburu nagusiak

II. plangintzaldi honetarako, lehentasunezko bi helburu ezarri ziren:

- langileen hizkuntza-trebakuntzan jarraitzea.
- euskararen erabilera sustatzea.

Batetik, derrigortasun indizea betetzea zen langileen hizkuntza-trebakuntzaren helburua; eta, bestetik, hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik zuten edo euskararen ezagutza nahikoa zuten Aldundiko langileen ehunekoa igotzea. Azken finean, aurreko aldiko helburu bera; izan ere, egoera normalizatu bat lortu nahi izanez gero; zerbitzua euskaraz eta gaztelaniaz eman ahal izateko, behar-beharrezkoa zen gaitasun egokia zutenen kopurua altuagoa izatea.

Euskara sustatzearen helburua, berriz, hizkuntza-gaitasuna lortua zuten Aldundiko langileei hizkuntza-ohitura berriak hartzen laguntzea zen. Helburu hori lortzeko, euskararen erabilera normalizatzeko plana zen bidea.

2.2. Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak

86/1997 Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, administrazio atal elebidunak, eta, bidezkoa izanez gero, euskaraz zihardutenak izango ziren euskal herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarria.

Administrazio atal elebidunak

86/1997 Dekretuaren 17. artikuluen arabera, Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasua, jendaurreko atal guztiak, gazteriarekin harremana dutenak eta gizarte mailakoak elebiduntzat hartu behar dira.

Jendaurreko atalen zeregin nagusia administratuekiko harremanetan oinarritzen da, ahoz edota idatziz; gazteriarekin harremana dutenak izenak berak esaten digu; eta gizarte mailakoak, herri-administrazioaren harreman sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak dituztenak.

Horrela egin zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 1999an onartu zuen II. Plangintzaldian.

Salbuespenak:

1. Izaeraren arabera elebiduntzat hartzekoak ez ziren atal batzuk ere elebiduntzat hartu ziren, lanpostu guztiek derrigortasun data baitzuten I. plangintzaldian.
2. Gehiengo erdalduneko zonaldeetan zeuden atalak ez ziren elebiduntzat hartu, izaeraren arabera elebiduntzat hartzekoak izan arren.
3. Atal bateko langileen hizkuntza egoerak ezinezko egiten zuten kasuetan; izaeratik hala egokitu arren, atal hori ez zen elebidun izendatu.

II. Plangintzaldiko datuak (2004koak)

Saila	Atalak guztira	Atal elebidunak	% sailean
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	2	1	% 50
Nekazaritza Saila	76	49	%64,47
Gizarte Ekintza Saila	26	14	%53,85
Kultura Saila	26	12+4 (eus.)	%46,15+15,38
Ogasun eta Finantza Saila	98	34	%34,69
Herri Lan eta Garraio Saila	35	5	%14,29
Herri Administrazio Saila	33	12	%36,36
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila	12	9	%75
Ingurumen Saila	18	3	%16,67
Hirigintza eta Udal Harremanak	14	3	%21,43
Lan eta Trebakuntza Saila	12	4	%33,33
GUZTIRA	342	150	%43,86

Derrigortasun datak

Atal elebidunetako lanpostu guztiei ezarri zitzairen derrigortasun data.

Salbuespenak:

- a) II. Plangintzaldiaren hasieran titularrak 45 urtetik gorakoak zirenak salbuetsita zeuden (arabidearen arabera).
- b) Titularra plangintzaldi horretan erretiratzekoa bazen, bere lanpostuari derrigortasun data ezarri zitzaion (atal elebidunetan).
- c) Saiatu arren hizkuntza eskakizuna lortzeko trebetasun edo gaitasunik ez zuten pertsonak ere salbuetsita geratu ziren.

- d) Titularrek eskulanak edo kontserbazio- eta mantentze-lanak egiten zituzten atal elebidunetako lanpostuak ere salbuetsita zeuden.
- e) Baita amortizatzekoak ziren lanpostuak ere.
- f) Atal bateko lanpostu berdinetako langileek euskara aldi berean ikasteak ekar zitzakeen problemak ikusirik malgutasunez jokatu zen.
- i) Suhiltzaileen kasuan ere, lanpostuaren espezifikotasuna aintzat hartuta, gehiengo euskalduna zuten zonaldeetan kokaturik egon arren, lanpostu hutsei eta plangintzaldi horretan erretiroa hartuko zutenei baino ez zitzaien derrigortasun data esleitu.

2.3. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

Hona hemen aldi horretarako hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko gutxieneko irizpide nagusiak:

- a) Euskara zerbitzu-hizkuntza da

Herritarrei bi hizkuntza ofizialetan emango zaie zerbitzua, idatziz zein ahoz. Idatzizko harremanetan administratuak aukeratzen duen hizkuntza erabiliko da. Ahozkoan euskararen erabilera sustatuko da administratuei zerbitzua ematen zaionean.

- b) Beste herri administrazioekiko harremanak

Legez EAeko administrazioen arteko harremanek bi hizkuntzetan izan behar badute ere, bietako bat aukeratu daiteke administrazioek beraien artean adostuz gero; plan honetan euskaraz izan daitezen sustatuko da.

- c) Euskara lan eta harreman hizkuntza Aldundian

Aldundi barruko lan harremanetan ere euskara lan hizkuntza izan dadin bultzatuko da; betiere horretarako borondatea eta egoera egokia izanez gero.

Atal elebidunetan ahalegin berezia egingo da langileek lana euskaraz egin ahal izateko; horretarako bitarteko egokiak jarriko dira (Erabilera Sustatzeko Plana).

2.4. Hizkuntza-gaitasuna: Jarduera Plana

Foru langileen hizkuntza-trebakuntza gauzatu ahal izateko 1999-2002ko Jarduera Plana onartu zen. Plan horretan bi tresna nagusi aurreikusten ziren helburuak lortzeko. Batetik, ikastaroen araubidea ezarri zen, trinkotasunaren arabera, eta langileak ikastaroetara joan ahal izateko baldintzak arautu ziren; bestetik, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana ezarri zen elebiduntzat hartu ziren administrazio ataletan.

Hizkuntza-trebakuntza

Hasiera batean, erakundearekin kontratu harreman mugagabea duten langile guztiek izan zuten planaren bidezko hizkuntza-trebakuntza jasotzeko aukera, baita bitarteko funtzionarioek ere. Hala ere, trebakuntza hori gauzatzeko baldintzak ez ziren berdinak izan kasu guztietarako.

- Ikastaro trinkoak, hau da, lanetik libratu beharra zekarten ikastaroak, derrigortasun data zuten langileentzat (funtzionarioak edo lan kontratu mugagabea zutenak).
- Arduraldi eskusiboa zutenentzat ikastaro bereziak eratu ziren, lanean jarraitzea ahalbidetuko zienak.
- Aldi honetan, derrigortasunik izan ez arren, aurreko eskakizuna zutenei ere aukera eman zitzaien ikastaro trinkoetara joateko, egindako ahalegina saritzeko (bi ikastaro, gehienez).
- Gainontzeko langileek lan ordutegitik kanpo joan behar izan zuten, eta eguneko lansaioaren azken ordua konpentsatzeko aukera eman zitzaien.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Euskararen Erabilera sustatzea bigarren helburua izan zen plangintzaldi honetan; Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatuen artean Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana funtsezko tresna bilakatu zen, ez bakarrik hizkuntza-eskakizuna egiaztatu behar zuten pertsonen ikasketa-prozesua bermatzeko, baita Aldunditik kanpo non praktikatu ez zuten pertsonak lorturiko hizkuntza-gaitasuna ez galtzeko aukera lantokian bertan izateko ere.

Plangintzaldi honetan ondoko hauek izan ziren Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren helburuak:

- Jendaurreko ataletan lan egiten zuten langileei trebakuntza egokia eskaini; batez ere ahozkoan.
- Atal elebidunetan bereziki euskara harreman hizkuntza izan zedin, batez ere ahozkoan, ahalegin berezia egin.
- Idatzian euskararen erabilera bultzatu, batez ere, dokumentu pertsonaletan: gorabehera fitxak, oporren eskaria, baimen eta lizentziak, instantziak...
- Euskararen idatzizko erabilera bultzatu atal elebidunetan, batez ere idatzi laburrak: Nork/nori-ak, jakinarazpenak...

Planaren ezaugarri nagusiak borondatea eta konpromisoa ziren: ez zen derrigorrezkoa parte hartzea; baina parte hartzen zutenei euskara erabiltzeko konpromisoa eskatu zitzaien. Planaren ezaugarrien artean aipatzen ziren adostasuneko, integratzailea (inor baztertu gabe), epe luzerakoa eta progresiboa izatea. Horretaz gain, gutxieneko hizkuntza gaitasuna eskatzen zen: 2.H.E.

Erabilera bultzatzeko talde saioak proposatu ziren. Saio horiek ohiko euskalduntze-prozesua bukatu eta euskara erostasunez erabili ahal izateko gai ziren, baina, laneko testu eta gai orokorrak lantzeko ziurtasunik ez, eta, batzuetan, zailtasunak ere izan zitzaizketenei zuzenduta zeuden.

Ahozkoa eta idatzizkoa lantzen ziren. Batetik, langileek jarriotasun, zuzentasun eta naturaltasunez hitz egitea lortu nahi zen, bai euren arteko harremanetan baita herritarrekin izango zituzten harremanetan ere. Bestetik, idatzizkoan oinarritzko zenbait idaztarau (data, orduak, zenbakiak, Euskaltzaindiaren azken arauak,..) lantzen ziren; baita inprimaki eta idazki labur

ohikoenak ere. Horrez gain, bizkaiera lantzen zen, ulermen mailan: batez ere, herritarrekin harreman zuzena zuten langileen kasuan.

Taldeak egiteko irizpideak: zerbitzu edota atal berekoak izan, antzerako lana egin, pareko euskara maila eta helburuak izan, elkarrekin lan harremanak edo harreman pertsonalak izan eta lan ordutegi bateragarria izatea. Astean bi egunean ordubeteko saioak proposatu ziren, lan ordutegi barruan.

2.5. Planaren jarraipena

Planaren jarraipena Hizkuntza Normalizazioaren Atalaren esku geratu zen. Horretarako plangintzaldiaren barruan bi txosten egingo zituela aurreikusten zen: bata plangintzaldiaren erdian eta bestea bukaeran. Txosten horietan aurreikusitako helburuak betetzeko zailtasunak detektatu eta egin beharreko egokitzapenak egingo ziren.

Bestetik, lanpostu bat sortzen zen bakoitzean Hizkuntza Normalizazioak txostena egin beharko zuen zein hizkuntza eskakizun eta derrigortasun data zegokion zehazteko. Era berean, atal horri jakinarazi beharko zitzaion lanposturen bat amortizatzea bazen; derrigortasun data izan zein ez izan.

2.6. Betetze-egoera

Bizkaiko Foru Aldundiak %34,12ko derrigortasun indizea bete behar zuen II. plangintzaldirako.

Aldundiko enplegatuen zerrenda honako hau zen 1999ko uztailean:

Lanpostu guztiak	2.879
Derrigortasun data dutenak	983
Derrigortasun datarik ez dutenak	1.896
Derrigortasun indizea	%34,14

2002an, honako datuak ditugu:

Lanpostu guztiak	3.092
Derrigortasun data dutenak	1.071
Derrigortasun datarik ez dutenak	2.021
Derrigortasun indizea	%34,64

Aurreko tauletako datuak alderatuta ikusten dugu 2002an 87 lanpostu gehiagok zutela derrigortasuna. Ikus dezagun orain zein izan zen betetze-egoera:

DERRIGORTASUN DATA DUTEN LANPOSTUAK	1.071
Egiaztatu dutenak	650 %60,69

Egiaztatu ez dutenak	255	%23,81
Lanpostu hutsak	166	%33,33

Honen arabera, derrigortasun data egiaztatu zutenak 650 ziren, hau da, kopuru osoaren %21,02. Ez dirudi, beraz, hasieran jarritako helburu lortu zenik.

Datuok irakurtzeko, baina, beste pare bat kontu izan behar ditugu kontuan. Batetik, derrigortasun datarik gabeko lanpostuak baina lanpostuari zegokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu zutenak: 378 langile, hain zuzen ere. Bestetik, 166 lanpostu hutsak (horiek betetzeko derrigorrezkoa zen hizkuntza eskakizuna gainditua izatea). Hortaz,

650 (egiaztatu dutenak)
+ 378 (derrigortasunik izan ez arren egiaztatu dutenak)
1.028 (%33,25)

Ateratzen zaigun %33,25 ez dago helburutik hain urruti (%34,64); eta, gainera kopuru honi, lehen esan dugun bezala, lanpostu hutsak gehituz gero:

$$1.028 + 166 = 1.194, \text{ hau da, } \%38,61.$$

Beren lanpostuen hizkuntza eskakizuna egiaztatu zutenek gain, bazeuden lanpostuaren hizkuntza eskakizuna ez, baina aurrekoren bat egiaztatu zutenak; hau da, maila bateko hizkuntza gaitasuna frogatu zutenak: eskatutakoa baino bat gutxiago 228 langilek eta eskatutakoa baino bi gutxiago 56 langilek.

2002ko datuetan hizkuntza eskakizunen arabera sailkapenik ez daukagu; bai ordea **2004koetan**:

H.E.	Lanpostu guztiak	%	Derrigortasun data dutenak	%	Derrigortasun datarik gabe	%
1. H.E.	230	7,46	27	2,52	203	10,10
2. H.E.	1.430	46,40	441	41,13	989	49,20
3. H.E.	1.323	42,93	599	55,88	724	36,02
4. H.E.	83	2,69	5	0,47	78	3,88
4. T.G.(*)	16	0,52	-----	-----	(16)	(0,80)
Guztira	3.082		1.072	%100	2.010	%100

(*) Kontuan izan behar da teknikari gaituaren hizkuntza-eskakizuna zuten lanpostuak ez zirela zenbatzen derrigortasun indizea ezartzean.

Bi laukiok alderatuta, bi kontu azpimarratu behar dira. Batetik, 1. H.E. zuten lanpostuen proportzioa (%7,46) nabarmen handiagoa dela derrigortasun data zuten 1. H.E.eko lanpostuen proportzioa baino (%2,52). Izan ere 1.H.E. , batez ere, eskulanak egiten zituztenei esleitu zitzaaien eta horiek izaera orokor eta bereziko ataletan zeuden, ez hainbeste gizarte izaerako edo jendaurreko ataletan (atal hauetan ezarri ziren derrigortasun datak).

Argitu dezadan izaera orokorreko atalak beren zereginak administrazio barruan betetzen dituztenak direla; ez dute administratuekin harreman zuzenik, bai langileekin. Izaera bereziko atalak eskulanak edo kontserbazio- eta mantentze-lanak egiten dituztenak dira.

Aipatzekoa da, 2. H.E. zuten lanpostuen proportzioa 3. H.E. zutenena baino handiagoa izanik ere, azken hauek zutela derrigortasun daten proportziorik handiena. Egoera hau hobeto ulertzeko kontuan hartu behar da II. plangintzaldiaren amaieran, errenta eta ondareko informatzaileen taldeak adierazi zuela 2. H.E.ak ematen zuen euskara maila —bera baitzen lanpostu horiei esleituriko hizkuntza-eskakizuna— ez zela nahikoa lanpostuari zegozkion eginkizunak betetzeko, haiek eman beharreko informazioa espezifiko eta konplexua baitzen. Hartara, kontuan hartu zen eskari hori, eta informatzaile eta kudeatzaileen kolektiboek aldatu egin zitzaizkien hizkuntza-eskakizuna, 2. H.E.etik 3. H.E.era.

Interesgarria da, era berean, jakitea nola banatzen ziren derrigortasun data zuten lanpostuak sailen arabera eta zein izan zen bilakaera plangintzaldian bertan:

Sailak	1999		2004		
	d.d.	% sailean	d.d.	% sailean	
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea			10	%71,43	
Nekazaritza	112	%36,48	118	%36,65	≈
Gizarte Ekintza	89	%52,66	129	%49,62	↓ 3,04
Kultura	106	%49,30	121	%49,39	≈
Ogasuna eta Finantzak	434	%44,42	465	%44,03	≈
Herri Lanak	28	%8,36	40	%14,49	↑ 6,13
Herri Administrazioa	116	%18,83	112	%16,97	↓ 1,86
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena	42	%49,41	27	%54	↑ 4,59
Ingurumena	31	%32,98	17	%20,73	↓ 12,25
Hirigintza eta Udal Harremanak	17	%38,64	18	%25,35	↓ 13,29
Lana eta Trebakuntza	7	%19,44	15	%32,61	↑ 13,17
GUZTIRA	982	%34,12	1.072	%34,78	≈

Goiko laukia aztertuz gero, zera ikusten da: 2004rako, hiru sailetan lanpostuen erdiek zuten derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna —Gizarte Ekintza (%49,62), Kultura (%49,39) eta Ekonomi Sustapena (%54)—, eta laugarren sail bat ere, Ogasun eta Finantza Saila, alegia, ehuneko horietatik hur zegoen, lanpostuen %44,03k baitzuten derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna.

Datuak guztira kontuan hartuta, ez dago alde handirik 1999ko eta 2004ko derrigortasun datetan, baina taulan ikus dezakegunez, Hirigintzan eta Udal Harremanetan, eta Ingurumenean behera egin zen nabarmen derrigortasunerako proposamen horretan.

Jarduera plana**Hizkuntza-trebakuntzaren balantzea**

Jarduera planaren barruan egiaztatutako hizkuntza eskakizunak:

	1999 - 2000 IKASTURTEA	2000 - 2001 IKASTURTEA	2001 - 2002 IKASTURTEA	2002 - 2003 IKASTURTEA	GUZTIRA
1. HE	13	28	17	13	71
2. HE	24	16	24	26	90
3. HE	22	36	24	15	97
GUZTIRA	59	80	65	54	258

Lauki honek emandako datuen arabera, II.plangintzaldian 258 pertsonak egiaztatu zuten beren lanpostuari zegokion hizkuntza eskakizuna.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balantzea

Aurretik esan dut, jada, Euskararen Erabilera Sustatzeko Planari 1996an ekin zitzaioela, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen artean euskararenganako sentsibiltatea eta eskaera handiagoa zegoela ikusita.

1999-2003 plangintzaldian Erabilera Sustatzeko Planean parte hartzeko eskaerak igotzen joan zirela esan daiteke. Hona hemen aldi horretako datu kuantitatiboak:

- 1999-2000** ikasturtean 32 langilek hartu zuten parte Nekazaritza Sailean eta 29 Kultura Sailean. 2000ko ekainean amaitutzat eman zen plana Nekazaritza Sailean.

Nekazaritza	Kultura	Guztira
32 langile	29 langile	61 langile
4 talde	4 talde	8 talde
1 trebatzaile	1 trebatzaile	2 trebatzaile

- 2000-2001** ikasturtean 39 langilek hartu zuten parte Kultura Sailean, 63k Ogasun eta Finantza Sailean eta 19k Lan eta Trebakuntza eta Ekonomia Sustapenaren sailetan.

Kultura	Ogasuna	Lan eta Ekon. Sustapena.	Guztira
39 langile	63 langile	19 langile	121 langile
6 talde	8 talde	3 talde	17 talde
1 trebatzaile	2 trebatzaile	1 trebatzaile	4 trebatzaile

- 2001-2002** ikasturtean 38 langilek hartu zuten parte Kultura Sailean; 75ek Ogasun eta Finantza Sailean; 25ek Gizarte Ekintza Sailean; 23k Lan eta Trebakuntza eta Ekonomia Sustapenaren sailetan; 7k Herri Lanetan eta 3k Lehendakaritza Sailean.

Kultura	Ogasuna	Gizarte Ekintza	Herri Lanak	Lan eta Ekon.	Lehend.	Guztira
38 langile	75 langile	25 langile	7 langile	23 langile	3 langile	164 langile
4 talde	9 talde	3 talde	1 talde	4 talde	1 talde	22 talde
1 treb.	2 treb.	1 treb.		1 treb.		5 treb.

Gainera, 2001-2002 ikasturtean Euskararen Erabilera Planean parte hartu zuten langileek, gaitasun linguistikoa berreskuratzeko (trebatzaileek beharrezkotzat jo zutenean) bestelako tresna bat izan zuten eskura: HEZINET metodoa (euskara ikasteko multimedia sistema). Guztira 31 langilek erabili zuten.

4. **2002-2003 ikasturtean** ere gora egin zuen Planean parte hartu duten langileek kopuruak. Parte hartzaileen kopuruak:

Kultura	Lehend.	Ogasuna	Gizarte Ekintza	Lan eta Ekon.	Herri Lanak	Guztira
34 langile	3 langile	108 langile	22 langile	31 langile	7 langile	205 langile
4 talde	1 talde	12 talde	3 talde	4 talde	1 talde	21 talde
1 treb.		3 treb.	1 treb.	1 treb.		6 treb.

2002-2003 ikasturtean 31 langilek erabili zuten HEZINET metodoa.

Laburbilduz,

	1999-2000	2000-2001	2001-2002	2002-2003
NEKAZARITZA	4 T / 32 L			
KULTURA	4 T / 29 L	6 T / 39 L	4 T / 38 L HEZINET: 4 L	4 T / 34 L HEZINET: 2 L
OGASUNA		8 T / 63 L	9 T / 75 L HEZINET: 15 L	12 T / 108 L HEZINET: 19 L
GIZARTE EKINTZA			3 T / 25 L	3 T / 22 L
EKONOMI SUSTAPEN		3 T / 19 L	4 T / 23 L	4 T / 31 L
LAN ETA TREBAK.			HEZINET: 9 L	HEZINET: 9 L
HERRI LANAK			1 T / 7 L	1 T / 7 L

LEHENDAKARITZA			1 T / 3 L HEZINET: 2 L	1 T / 3 L HEZINET: 1 L
GUZTIRA	8 T / 61 L	17 T / 121 L	22 T / 164 L HEZINET: 31 L	21 T / 205 L HEZINET: 31 L

Nekazaritza Saileko saiakerak ez zuela ibilbide luzerik aurreikusita, 1999an, Kultura Sailera hedatu zen plana hizkuntza egoera egokia eta enplegatuen aldeko jarrera baliatuz (bertako zerbitzuburu batek plana abian jartzeko interesa erakutsi zuen).

Bide beretik, 2001ean hasita, beste hainbat sailetara hedatu zen, betiere, langileen eskabideei erantzunez: Gizarte Ekintzara, Ogasun Sailera, Herri Lan eta Garraio Sailera, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapenera, Herri Administrazioa, Ingurumenera, Hirigintza eta Udal Harremanetara, eta Lan eta Trebakuntza Sailera. Aire freskoa behar zuen erabilerak. Gainera, pentsatu zen euskararen aldeko jarrera hedatzea mesedegarri izan zitekeela etorkizunean; eta, bide batez, sail bakoitzean erabileran urrats sendoagoak emateko baldintzak bete zitzaizkiren atalak identifikatzen lagun zezakeela fase honek. Hasiera batean, arduradunei ematen zitzairen lanean euskaraz trebatzeko modulu hauen berri, eta beraiek erabakitzen zuten zerbitzu edota atalean martxan jarri ala ez. Ondoren, langileen artean zabaldu zen parte hartzeko aukera (arduradunen adostasuna tarteko). Zabaltze honek, oraindik ere, indarrean dirau.

Gogoan hartu behar dira, betiere, planaren helburua eta ezaugarriak. Helburua: Bizkaiko Foru Aldundiko langileek euskara gero eta gehiago erabiltzea, bai lan-hizkuntza den aldetik, baita zerbitzu-hizkuntza den aldetik ere. Ezaugarriak: langileek borondatez hartuko dute parte, eta parte-hartze horrekin batera, ahal zuten neurrian, euskara erabiltzeko konpromisoa.


Erabileran eragiteko tresna nagusia talde saioak ziren. Eskaintzan egokitzapen batzuk egin behar izan ziren; horrela bada, lanpostuari zegokion euskara-maila lorturik ere, gaitasunean atzera nabarmen egin zuten langileei begira, HEZINET metodoa (euskara ikasteko multimedia sistema) jarri zitzairen eskura. Helburua: aurretik lortutako maila berreskuratu, edo, behintzat, horretara hurbiltzea.

Talde saioetatik kanpo langileek trebatzailearengana jotzeko aukera izaten zuten behar zuten guztietan.

Bigarren plan hau amaitu zenean ordura arte aritutako taldeekin bukatzeko aukera aztertu zen. Dena den, azkenean, taldeekin aurrera egitea erabaki zen hurrengo planean ere.

Ordura arte ibilitako taldeetan talde-saioek eman beharrekoa eman zutelako iritzia zegoen. Aurrera begira hizkuntza baldintza egokiak zituzten atal elebidunei lehentasuna eman beharko zitzaiekeela pentsatu zen; beti ere plana abiatzeko eskatzen zutenei. Horrek ez zuen esan nahi gainontzeko atalei ere aukerarik emango ez zitzaizkiren. Talde-saioetan aritzeko aukerak hasiera eta bukaera izan behar zuela uste zen, baita langileei euskara erabiltzeko konpromiso sendoagoak eskatzeko aukera aztertu beharra zegoela ere.

HEZINET multimedia sistema erabili zuten ikasleak gustura agertu ziren emandako aukera horretaz: langile bakoitzari ordenagailuan instalatzen zitzaion sarbidea eta nahi zuen momentuan erabil zezakeen. Hementxe etorri zen arazoa: langileek laneko denbora erabiltzen zuten sistema erabiltzeko, eta, era berean, honek zaildu egiten zien behar bezalako aprobetxamendua egitea.



3. III. Plangintzaldia (2003-2007)

2005eko maiatzaren 12ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Gobernu kontseiluaren maiatzaren 3ko Erabakia argitaratzearekin batera hasi zen III. Plangintzaldia Bizkaiko Foru Aldundian

3.1. Planaren helburu nagusiak

Plan honek aurrekoak bezala, bi helburu zituen:

- Erakundeko langileen hizkuntza gaitasuna sustatu eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea.
- Gaitasun hori lortu ondoren, bigarren helburua langileak trebatzea zen; bete behar zituzten eginkizun eta zereginak euskaraz ere egin ahal zituzaten.

Horretarako, batetik, aldi horretarako lanposturako hizkuntza-trebakuntza plana zehaztu zen, Aldundiko langile guztiei zuzenduko zitzaiena, ez bakarrik karrerako funtzionario edo mugagabeko lan-kontratua zutenei.

Bestetik, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana ere zehaztu zen. Izan ere, argi geratu zen hizkuntza-trebakuntzak ez ziela beti administrazioko langileei ohiko beharrak egiteko behar zuten gaitasuna ematen. Horrela, erraz aurki zitezkeen lanpostuari zegokion hizkuntza eskakizuna egiaztatuturik eduki arren, lan-arloan, hau da, beren arteko harremanetan nahiz eginkizunak burutzean, euskararik ia-ia erabiltzen ez zuten langileak. Plangintzaldi honetan aurrekoan baino garrantzi handiagoa hartu zuen plan honek.

3.2. Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak

Administrazio atal elebidunak

Aurreko plangintzaldian elebiduntzat hartu zirenak; hau da, jendaurreko administrazio atal guztiak eta gazteriarekin harremana eta gizarte izaera zutenak.

Plangintza honetan proposamen berriak izan ziren:

- a) Aurreko planean salbuespena egin zen gehiengo erdalduneko zonetan kokatzen ziren ataletan; ez ziren elebiduntzat hartu. Honetan, ordea, ataleko lanpostuen titularrek hizkuntza eskakizuna egiaztatuta zuten kasuetan elebidun izendatu ziren.
- b) Izaera orokorreko administrazio-atalak, beti ere, atala osotzen zuten langile guztiek zegokien HE egiaztatua zutenean.
- c) Izaera orokorrekoak ziren baina Aldundiko langile guztiei edo sail barruko guztiei zuzendutako zerbitzu horizontaleko administrazio-atalak. Egokitzapen hau funtsezkotzat jo zen euskara lan hizkuntza ere izan zedin, eta ez bakarrik zerbitzu hizkuntza. Izan ere, administrazio barrukoa jardunbidearen euskarri eta ardatza izanik, lan harremanen egitura baldintzatzen baitute neurri handi batean.

Saila	Atalak guztira	Atal elebidunak	% sailean
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	2	1	% 50
Nekazaritza Saila	86	66	%64,47
Gizarte Ekintza Saila	26	25	%53,85
Kultura Saila	29	24+4 (eus.)	%46,15+15,38
Ogasun eta Finantza Saila	98	41	%34,69
Herri Lan eta Garraio Saila	35	10	%14,29
Herri Administrazio Saila	36	19	%36,36
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila	12	12	%75
Ingurumen Saila	18	15	%16,67
Hirigintza eta Udal Harremanak	14	5	%21,43
Lan eta Trebakuntza Saila	12	10	%33,33
GUZTIRA	368	228(+4)	%63,04

Gogoratu dezagun aurreko plangintzaldian atal elebidunen portzentajea 43,86koa dela; beraz, bada kontuan hartzeko igoera.

Derrigortasun datak

Eutsi egin zitzaion aurreko plangintzaldiko irizpide orokorrari, elebiduntzat hartutako administrazio ataletako lanpostu guztiei derrigortasun data esleitzeko irizpideari.

Aurrekoez gain, titularrak bere lanpostuari derrigortasun data ezartzeko eskatuz gero, esleitu egin zitzairen.

Lanpostua kokatzen zeneko atal administratiboaren izaera edozein izanda ere, arian-arian eta progresiboki derrigortasun data esleitu zitzairen herritarrak foru erakundearengana hurbiltzen ziren lehenengo unean jendearekiko harreman zuzena zuten langileen kolektiboari: mandatariak, foru jauregiko atezainak, iraungitzeak ziren menpekoak eta Foru Aldundiko menpekoak.

Derrigortasun-data aldarazteko proposamena

- a) Kentzeko: zuzendaritzako idazkariak. Izan ere, diputatuak edo zuzendariak erabakitzen zituen titularrek bete beharreko baldintzak.
- b) Jaisteko: atalburu edota zerbitzaburuen lanpostuetan 4.H.E. izan ordez, 3.H.E. ezartzeko proposamena.
- c) Igotzeko: informatzaile eta kudeatzaileen kolektiboari aldatu egin zitzairen hizkuntza-eskakizuna, eta 2. H.E.etik 3. H.E.era pasatu zitzairen II. plangintzaldiaren amaieran. Izan ere, 2. H.E.ak ematen duen euskara maila ez zen nahikotzat jotzen

lanpostuko zereginak betetzeko, eman beharreko informazioa espezifiko eta konplexua baitzen askotan.

Hobetzeko proposamenak

Aldundiak konpromisoa hartu zuen derrigortasun data zuen plaza hutsetariko bat bera ere ez zedin bete lanpostuari zegokion hizkuntza-eskakizuna ez zuen langile baten bidez.

Bi urterik behin, lan-poltsak osatzen zituzten pertsonen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia egiteko konpromisoa ere hartu zen. Lehenengoa, 2005ean.

Hona hemen derrigortasun datak sailez sail (2008ko datuak):

Sailak	Lanpostuak	d.d.	% (sailean)
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	19	8	42,11
Nekazaritza	315	178	56,51
Gizarte Ekintza	330	278	84,24
Kultura	256	166	64,84
Ogasuna eta Finantzak	1004	529	52,69
Herri Lanak	222	32	14,41
Udal Harremanak eta Herri Administrazioa	718	306	42,62
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena	60	42	70
Ingurumena	81	43	53,09
Garraioa eta Hirigintza	91	34	37,36
Lana eta Trebakuntza	38	32	84,21
GUZTIRA	3.134	1.648	52,58

Zenbait sailetan, derrigortasun data zuten lanpostuak %80tik gora ziren; esaterako Gizarte Ekintzan eta Lana eta Trebakuntzan. Eta gehientsuenetan %50etik gorakoa zen kopurua. Kontrako muturrean zeuden Herri Lanak eta Garraioa eta Hirigintza; ez oso aparte, Udal Harremanak eta Herri Administrazioa ere.

3.3. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

Plangintzaldi honen barruan, 2007an argitaratu zen 43/2007 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren jardura esparruan. Hona hemen laburpentxo bat:

1. artikulua. Zerbitzu hizkuntzak

Euskara eta gaztelania herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak izango dira Bizkaiko Foru Aldundiko eremu eta atal guztietan.

1. Ahozko harremanak

- a. Langilea ahaleginduko da herritarri lehenik euskaraz berba egiten, eta gero administratuak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko du.
- b. Euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz berba egiten dianean, inguruko lankide elebidunei eskatuko die laguntza.
- c. Bizkaiko Foru Aldundiko langileek ezin izango diete eskatu herritarrei hizkuntza batean edo bestean jarduteko.
- d. Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzungailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez, bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

2. Idatzizko harremanak

- a. Inprimaki guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo dira.
- b. Herritarrei zuzendutako dokumentazioa ere bi hizkuntzetan; ezkerreko zutabeak euskarazko testua joango da.
- c. Hartzaile jakinik gabeko idatziak ere bi hizkuntzetan.
- d. Euskara soilik hartzaileak euskaraz jardutea hautatu duenean.

2. artikulua. Lan hizkuntzak

1. Dokumentu bakoitzaren ezaugarrien eta zabalkundearen arabera erabakiko da zein hizkuntzatan sortu eta bideratu dokumentua.
2. Derrigortasunezko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei bi hizkuntzetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie, kasuan-kasuan, lan beharizanen arabera.

3. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko komunikazio administratiboak

Euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita bideratuko dira.

4. artikulua. Beste herri administrazioekiko harremanak

Lurralde berekoekin bi hizkuntza ofizialetan; baita euskara ofiziala den lurraldeetakoekin ere. Erantzuna emateko jatorrizko idatziaren hizkuntza berean.

5. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideen itzulpen irizpideak

Itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzeko estrategiak aztertu eta ezartzea sail bakoitzaren eginkizuna da; esaterako: euskaraz jasotzen diren dokumentu guztiak ez dira besterik gabe itzuliko. Horretarako izapidetu behar duenak ez duela behar besteko gaitasuna egiaztatu behar da eta orduan ere, edukiaren laburpena egingo da (osoa itzultzea ezinbestekoa ez bada). Gainera, ahal den neurrian, administrazio-agiri elebidunak sortuko dira eskura diren bitartekoak erabiliz(hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten langileak, trebatzaileak, eredu normalizatuak, informatika tresnak...)

6. artikulua. Langileen etengabeko prestakuntza

1. Langileei eskubidea aitortzen zaie, prestakuntza bi hizkuntza ofizialetan jasotzeko.

2. Aldundiak urteroko eskaintzetan euskaraz egingo diren ikastaroen eskaintza bat prestatuko du.
3. Prestakuntza ikastaroetan izena emateko era guztietako tresnetan hizkuntza ofiziala aukeratzeko atal bat izango da, ahal den neurrian.
4. Langile batek ikastaro bat euskaraz egiteko eskatu eta antolatzerik ez dagonean, ardura duen zailak irtenbidea bilatzen saiatuko da, langilearen aukera errespetatuz.
5. Bi hizkuntza ofizialen arteko oreka zainduko da (plan orokorretik kanpo).

8. artikulua. Diru-laguntzak

Diru-laguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta izakundeek, pertsona fisiko nahiz juridikoek, euskara erabili beharko dute, diruz lagundutako jardunaren bitartez sortutako agerpen publiko orotan.

9. artikulua. Argitalpenak

Gida, aldizkari, katalogo eta zabalkunderako argitalpen guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira; tratamendu orekatua izan behar dute.

10. artikulua. Tresna eta aplikazio informatikoak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuetan erabiltzeko beren beregi sortzen diren programa edo tresna informatikoak prestatu egon behar dira, bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko.
2. Gaur egun erabiltzen diren programa informatikoak prestatu egon ez daudenean euskaraz lan egin ahal izateko, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak egutegi bat zehaztuko du tresna horiek egokitu eta prestatzeko (dagokion sailak).
3. Programa informatiko komertzial edo orokorrak direnean, euskarazko bertsioa eginik badago, horri emango zaio lehentasuna, administrazio unitate elebidunetan.

11. artikulua. Internet eta intranet sareak

Euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira; euskarazko orria agertuko da lehenbizi. Hauen bitartez egin beharreko izapide guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

12. artikulua. Errotulazioa

Oro har, euskaraz eta gaztelaniaz agertuko da. Euskara hutsean egongo da errotuluetako hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia dutenean edota pezuak piktograma batez lagunduta daudenean.

13. artikulua. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

Bi hizkuntza ofizialetan; euskarazko hedabideetan euskara hutsez.

15. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako jende aurreko ekitaldiak

Kontuan hartuko dira ekitaldiaren helburuak, gaiak, gizarteko eragina, hartzaile edo entzule izan daitezkeenak, hizlari edo irakasleak eta erabili edo banatuko den materiala.

16. artikulua. Kontratazio administratiboak

Kontratu bidez eman beharreko zerbitzuetan ere bi hizkuntza ofizialak erabili behar dira herritarrekin zuzeneko harremanak tartean daudenean.

3.4. Hizkuntza-gaitasuna: Jarduera Plana

Aurreko aldietan bezala, bi tresna nagusi aurreikusi ziren helburuak lortzeko. Batetik, ikastaroak (ikastaro motak trinkotasunen arabera, langileak ikastaroetara joan ahal izateko baldintzak eta hizkuntza-trebakuntzarako izango zuten ordu-kredituen taula) eta bestetik, gehienbat atal elebidunei zuzenduta, Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana (bi modulutan banatu zen).

Hizkuntza-trebakuntza

Jarduera Plana Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei zuzendu zitzaien; teoriarik, langile guztiek izango zuten hizkuntza-trebakuntzako ikastaroak egiteko aukera Planaren barruan. Hala ere, praktikan, Aldundiko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz aukerak eta lehentasunak ezberdinak izan ziren, langile bakoitzak ezarria zuen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabera. Jarduera planaren barruan ikastaro mota bat baino gehiago zegoen: trinkoa, 2 ordukoa (lanorduetan) 2 ordukoa (lanorduetatik kanpo)

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

2003-2007 Plangintzaldiko Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren xedea eta ezaugarriak honako hauek izan ziren:

1. Xedea: Bizkaiko Foru Aldundiko langileek euskara erabiltzea: bai lan hizkuntza den aldetik, baita zerbitzu hizkuntza den aldetik ere.
2. Ezaugarriak aurreko plangintzaldikoak: borondatezkoa, konpromisoa eskatzen duena, adostasunezkoa, gutxieneko gaitasuna eskatzen duena eta integratzailea.

Xedea eta ezaugarriak aldatu ez baziren ere, halako batean, eskaintzan egokitzapen batzuk egin ziren: moduluak eskaini ziren, bi eratakoak, hain zuzen ere.:

1. BIRZIKLATZE MODULUA antolatu zen lanpostuaren hizkuntza eskakizuna eskuratu bai, baina gaitasunean atzera nabarmen egin zuten langileei zuzenduta. Izan ere, askotan euskalduntze-prozesua bukatutakoan, askok euskararekin zuen harremana hutsaren hurrengoa zen, lanpostuan zein lanpostutik kanpo eta espero izatekoa da horrek gaitasunean atzerakada eragitea.

Parte-hartzaileek lanpostuari zegokion hizkuntza-eskakizuna egiaztaturik eduki behar zuten. Azken finean, modulu hau aurreko plangintzaldiko HEZINET multimedia sistema ordezkatzera etorri zen.

Modulu hauek ere lan-ordutegiaren barruan egin ziren eta 150 orduko egitaraua aurreikusi zen.

Moduluotan ondoko arloak landu ziren:

Ahozkoa: zuzentasuna, jarioa, komunikatzeko gaitasuna... landu ziren. Helburua langileen artean eta administratuekiko harremanetan euskaraz jarduteko hizkuntza gaitasuna garatzea zen.

Idazmena: helburua testu laburrak idazten autonomoak izatea zen eta horretarako bitartekoak eskainiko zitzaizkien.

Bizkaiera: Ulermen mailan.

2. ERABILERA SUSTATZEKO MODULUA, aldiz, ohiko euskalduntze prozesua bukatu eta euskara erosotasunez erabili ahal izateko gai izan, baina laneko testu eta gai orokorrak lantzeko zailtasunak zituztenentzat antolatu zen.

Parte hartzeko gutxieneko baldintza, aurreko plangintzaldian bezala, 2.H.E. egiaztaturik izatea edo horren pareko ahozko euskara-maila erakustea izan zen.

Moduluok lan-ordutegiaren barruan egin ziren eta 300 orduko egitaraua aurreikusi zen. Ikusten denez, aurreko aldiko hausnarketak egitaraua ordu kopuruan zehaztera eraman zuen.

Aurreko plangintzaldietako arlo berak landu ziren: Ahozkoa, idazmena (testu laburrak eta inprimakiak) eta bizkaiera (ulermen mailan).

EraMiak

EraMi edo Erabilerarako Mikroplanak euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ahaleginei laguntzeko mikroplanak dira. EraMi bat ezartzen den administrazio-atalean kide guztiek behar adinako euskara-maila izan beharko dute (gutxienez lanpostuaren HE), kide guztien adostasuna behar da, eta euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ikerketa-interbentzioa burutuko da.

Ikerketa-interbentzioen bidez, administrazio-atalean eraldaketa (euskaraz lan egitea) burutzeko proposamenak egiten dira. Horretarako, eraldaketa hori oztopa dezaketen aldagaiak identifikatu eta positibo bihurtzeko esku-hartzea programatzen da. Horren adibideak ikusi nahi izanez gero, ikusi *Eralan ikerketa-proiektuak 2008*.

Horrelako plan bat martxan jartzen den atalean langileek euskara hutsean burutu ahal izango dute beren lana, itzulpenetara jo gabe, aplikazio informatikoetan euskarazko bertsioak izan beharko luke lehentasuna, lanposturako prestakuntzan ere euskarari bideak ireki beharko litzaizkioke, eta horretaz gain, langileei hizkuntza-prestakuntza berezia eman beharko litzaieke ikerketa-interbentzioen bitartez.

2006-2007 ikasturtean, Kultura Saileko Kirola zuzendaritzan eta Udal Kirolaren atalean, interbentzio bi burutu ziren. Helburuak honako hauek: Zuzendaritzako bileretako ahozko interbentzio gehienak euskaraz izatea; Udal Kirol eta Kirol Azpiegitura Atalean, euskara lan-hizkuntza izatea ahoz zein idatziz; eta KIROLBIDE batzordeko jardueretan hizkuntza-irizpidea kontuan hartzea.

2007-2008 ikasturtean, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saileko Erosketen eta Horniduren Atalean ere, Ataleko buruak eskatuta, interbentzio bat abiatu zen. Helburua: Euskara lan-hizkuntza eta harremanetarako hizkuntza izatea.

Ikerketa-interbentzioen metodologia

EPEsA metodologian (Euskara Planetan Eskuartzeko Analitikorako Metodologia) oinarrituta daude. EPEsA metodologia, euskararen normalizaziorako planak egikaritzen ari diren organizazioetan esku-hartze analitikoak diseinatzeko eta burutzeko eredu metodologiko berria da, Eralan ikerkuntza/ekintza proiektuan egokitu eta aplikatu den diseinu metodologikoan oinarrituz garatu dena.

Eralan ikerketa proiektua hizkuntza normalizazio planak dituzten lan munduko erakundeetan euskararen erabileran eragiten duten aldagaiak identifikatzeko eta horietan positiboki eragiteko metodologia gorpuzteko helburuarekin garatu den ikerketa proiektua izan da.

EPEsA metodologiari jarraituz, ikerketa-interbentzioak honako 4 urrats eman behar ditu:

A) *Ikerketa-interbentzioa planteatu.* Lau elementuk osotzen dute urrats hau:

- Aurrekariak eta kokapena
- Kanpoko erreferentziak. Erreferentzia teorikoak, metodologikoak, edota beste esperientzietakoak.
- Ikerketa-interbentzioaren helburuak eta hipotesia
- Aldagaiak. Interbentzioan zehazki landu nahi den aldagaia edo aldagaiak zehaztea.

B) *Ikerketa-interbentzioa programatu:* Programazio honek hiru atal nagusi ditu: aldagaiei lotuta geratuko diren ekintzak zehaztea; ekintza horien atazak zehaztea, egutegia, ardura eta bitartekoak; eta interbentzioaren ebaluazioa programatzea.

C) *Ikerketa-interbentzioa burutu.*

D) *Ikerketa-interbentzioa baloratu eta berrikusi.*

3.5. Betetze-egoera

Bizkaiko Foru Aldundiak III. Plangintzaldian bete behar zuen derrigortasun indizea **%37,35**ekoa izan zen. Plana argitaratu zeneko datuei (2005eko maiatzekoak) begiratuta, zenbaki nagusiak honako hauexek ditugu:

Lanpostu guztiak	3.134
Derrigortasun data dutenak	1.648
Derrigortasun datarik ez dutenak	1.486
Derrigortasun indizea	%52,58

Lauki honetan ikusten denez, Plangintzaldiaren erdialdera ere, hasieran aurreikusitako gutxieneko derrigortasun indizea (%37,35) 15 puntutan gainditu zen (**%52,58**).

2009ko maiatzeko datuei erreparatuta honako hau zen egoera:

Lanpostu guztiak	3.255
Derrigortasun data dutenak	1.970
Derrigortasun datarik ez dutenak	1.285
Derrigortasun indizea	%60,52

Lanpostuak hizkuntza-eskakizunen arabera banatuz gero, derrigortasuna kontuan hartuta, ondoko lauki hau dugu:

H.E.	Lanpostu guztiak	%	Derrigortasun data dutenak	%	Derrigortasun datarik gabe	%
1. H.E.	111	3,41	16	0,81	95	7,39
2. H.E.	1.356	41,66	739	37,51	617	48,02
3. H.E.	1.771	54,40	1.215	61,68	556	43,27
4. H.E.						
4. T.G.(*)	17	0,52	-----	-----	(17)	(1,32)
Guztira	3.255		1.970	%100	1.285	%100

(*) Kontuan izan behar da teknikari gaituaren hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuak ez direla zenbatzen derrigortasun indizea ezartzean.

Derrigortasun indizearen betetze gradua

Datuei erreparatuta 2009ko derrigortasun indizea, %60,52koa, 2005eko %37,35etik urruti dago.

Azter dezagun orain derrigortasuna zuten lanpostu horietan zeudenetik zenbatek egiaztatu zuten zegokien maila.

DERRIGORTASUN DATA DUTEN LANPOSTUAK	1.970	
Egiaztatu dutenak	1.303	%66,14
Egiaztatu ez dutenak	434	%22,03
Lanpostu hutsak	233	%11,83

Hortaz, ikus dezakegu lanpostuen betetzailen %22,03k ez zutela lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna bete, derrigortasun data izan arren. Horrez gain, derrigortasun datarik gabeko lanpostuak guztira 1.285 ziren eta horietatik 275ek egiaztatu zuten zegokien hizkuntza eskakizuna. Beraz,

1.303 (egiaztatu dutenak)

+ 275 (derrigortasunik izan ez, baina egiaztatu dutenak)

1.578 (%48,48)

Lortutako kopuru hau ere, plangintzaldi honetarako aurreikusitako derrigortasun indizetik gora dago (%37,35). Gainera kopuru honi lanpostu hutsak gehituz gero (gogoratu lanpostu hutsak beteko dituztenek hizkuntza eskakizuna egiaztatua izan behar dutela):

1.578 + 233 = 1.811 (%55,64)

Kontuan izan behar da, bestalde, derrigortasun data izan eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez zuten 434 langileetatik 137k hizkuntza eskakizunen bat egiaztatu zutela eta 69 salbuetsita zeudela.

Jarduera plana

Hizkuntza-trebakuntzaren balantzea

Jarduera planaren barruan egiaztatutako hizkuntza eskakizunak:

	2003 - 2004 IKASTURTEA	2004 - 2005 IKASTURTEA	2005 - 2006 IKASTURTEA	2006 - 2007 IKASTURTEA	GUZTIRA
1. HE	40	53	67	48	208
2. HE	76	49	65	56	246
3. HE	44	53	57	31	185
4. HE	3	4	3	2	12
GUZTIRA	163	159	192	137	651

Oharra: Datu hauetan Bizkaiko Foru Aldundiko, GUFEn eta LAEko langileak sartuta daude; Aldundiko deialdiak bere Organismo Autonomoentzako ere badira.

Alderatzen baditugu, orain, taula honetan jasotako datuak aurreko Plangintzaldian eman zirenekin (258k egiaztatu zuten hizkuntza eskakizunen bat), ikusten dugu jauzia egin zela, ia hirukoiztu egin baitzen hizkuntza eskakizuna egiaztatu zutenen kopurua.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren balantzea

Erabileraren sustapenean egindakoaren balantzeari ekiteko orduan, bi atal bereizi behar dugu: alde batetik, sailetan antolatu ziren moduluak, trebatze-saioak eta jarduerak, eta bestetik, ikerketa-interbentzioen sistema.

Plangintzaldi barruan ere, zenbait aldaketa egin ziren arautegiari zegokionez:

- a. Behin parte hartzeko konpromisoa hartuta, langileek derrigorrez joan beharko zuten saioetara, salbuespenak salbu.
- b. Hutsak zuritu beharko zituzten langileek eta ehuneko hamar huts baino gehiago eginez gero, Planean jarraitzeko aukera galduko zuten.

Aldaketa hauek 2005-2006 ikasturtean sartu ziren indarrean.

Arautegian egindako aldaketak kontrako erreakzioa sortu zuen: langile askok ez jarraitzea erabaki zuten, kontrol zorrotza ezarri nahi zitzaielakoan. Honek, beheraxeago ikusiko dugun moduan, parte hartze txikiagoa ekarri zuen.

Ondoko taulan datu kuantitatiboak ikusi ahal dira:

	2003-2004	2004-2005	2005-2006	2006-2007	2007-2008
NEKAZARITZA				5	18
KULTURA	14	18	12	17	13
OGASUNA	140	151	95	89	104
GIZARTE EKINTZA	47	99	38	30	46
EKONOMI SUSTAPEN	24	30	27	18	9
LAN ETA TREBAKUNTZA					
HERRI LANAK/GARRAIOA	10	17	13	14	9
UDAL HARREMANAK/ HERRI ADMINISTRAZIOA	14	22	10	11	12
INGURUMENA	6	12		5	5
GARRAIO/HIRIGINTZA				2	5
GUZTIRA	255	349	195	191	221

Ikusi ahal denez, 2003-2007 plangintzaldiko 2004-2005 ikasturtean, eskabideek gora egin zuten nabarmen. Gero, arautegi berria indarrean jarri zenean (2005-2006 ikasturtean), eskabideek behera egin zuten. Ikasturte horretatik aurrera, eskabide kopurua eta parte hartzea mantendu egin ziren eta, 2008-2012 plangintzaldiko 2007-2008 ikasturtean gora egin zuten apal.

Asistentzia aldetik, orokorrean, datuak ez ziren espero bezain onak izan. Saioetara ez joateko arrazoi asko aipatzen dira. Hona hemen langileek eman zituzten arrazoietako batzuk:

- ordutegia
- lan zama
- lan bilerak
- lanpostu aldaketa

- lanbide hobekuntzarako ikastaroak
- aukerako ikastaroak
- norberaren aukerako egunak hartzea
- opor egunak hartzea
- gaixotasuna
- ...

Kasuistika zabala. Honek taldearen homogeneousunean eragin txarra izan zuen eta programa egokiro garatzea oztopatu zuen.

Erabilera Sustatzeko Planak izan zuen eragina aztertzeke ez dago datu zehatzik, neurketarik ez zen egin eta. Hala ere, intuizioa, langileen iritzia eta euskara trebatzaileek eta hiritarrek ziotena kontuan hartuta, erabilera-mailak neurri txiki batean, behintzat, gora egin zuela ondorioztatu zen. Gehikuntza txiki horretan, Euskararen Erabilera Planaren eragina txikia izan arren garrantzitsutzat jo zen. Orokorrean langile gehiagok egiten omen zuen euskaraz erabilera taldeak zeuden lekuetan. Baina, honelako taldeak antolatu ziren zentroetan, nahiz eta langile gehienek lehen hitza gaztelaniaz izan, norbait euskaraz zuzentzen zitzaizkion, zuzenago, jarioz gehiago eta ziurtasun gehiagoz erantzuten omen zuten. Hau da, langile horiek, euskaldun pasibotzat har zitezkeen; planaren aurretik, ezta hori ere.

Planean egindako aldaketan balorazioa:

1. Birziklatze moduluari dagokionez:

a. Langileen balorazioa ona izan zen: *hizkuntza gaitasuna ez galtzeko balio omen zuen*. Maila apaleko elkarrizketak izan ahal izateko balio zuen, baita oso testu errazak idatzi ahal izateko ere.

b. Hizkuntza trebatzaileen balorazioa ez zen ona izan: astean bi edo hiru saio eginda, ez zuten uste erabilera prozesuan aurrera egin zitezkeenik. Euskararen Erabilera Sustatzeko arduradunaren balorazioa ere ez zen ona izan. Bere iritziz, langile horiek lanpostuari zegokion hizkuntza gaitasuna berreskuratzeko plan zehatz baten barruan sartu beharko ziratekeen. Plan horretan hasiera-hasieratik helburuak argi egon beharko ziratekeen eta beroriei zegozkien erritmo eta epeak zehaztuta.

2. Arautegian egindako aldaketei dagokionez: Kontrola zorrotzegia zela iritzita, langile askok moduluetan parterik ez hartzea erabaki zuten.

Ikerketa-interbentzioen balantzea

Esan dut, jada, 2006-2007 ikasturtean, Kultura Saileko Kirola zuzendaritzan eta Udal Kirolaren atalean, interbentzio bi burutu zirela. Berorien balorazioa ona da: Zuzendaritzako bilerak euskaraz izatea lortu zen hasieratik, baina euskaraz egiteko ohiturarik ez zuen kide bat sartu zen, eta, orduz geroztik, erdaraz egiten hasi ziren. Atalean, berriz, emaitzak hobeak izan ziren: langileek eztabaidatu, onartu, eta sinatu egin zuten jarduera-protokolo bat. Protokolo horretan zehaztu zen, bai ahoz (bilerak, eguneroko lan-harremanak, ...), bai idatziz (mezuak, e-mailak, testu mota desberdinak...) euskara noiz eta nola erabili behar zen Atal barruko lan-harremanetan eta udaletako zein beste erakunde / elkarteetako

ordezkarietara harremanetan ere. Ataleko egoera aproposa zen, parte-hartzaileen euskara-maila proposatutako helbururako egokia zelako, eta atalburuak funtsezko rola bete zuelako: lider informala, akuilu,... izan zen.

2007-2008 ikasturtean Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saileko Erosketen eta Horniduren Atalean egindako interbentzioaren balorazioa ere ona da: ataleko bilerak euskaraz egiten hasi ziren, ataleko kideen arteko mezuak euskaraz bideratzen hasi ziren, leihatilara hurbildu ziren gehienei euskaraz egiteko aukera eman zitzaientzen... Langileak gustura agertu ziren hartu eta betetako konpromisoekin; azken finean, benetako eraldaketarako aukera bazegoela ikusi zuten. Hala ere, kearen batzuk agertu zituzten: programa eta dokumenturen batzuk gaztelaniaz zeuden eta daude (Administrazioak dokumentuak eta programak euskaraz jartzeko hartutako konpromisoa gorabehera).

Euskararen Erabilera neurtzeko azterketa

2004ko urtarrilaren 27tik maiatzaren 7ra euskararen erabilera aztertu zen; jendaurreko ataletan zein hizkuntza erabiltzen zuten jakiteko datuak jaso ziren. Horretarako datu jasotzaileak behaketa bidez momentu horretan zein hizkuntzatan ari ziren administratua eta langilea jaso zuen.

18. 353 elkarrizketa behatu ziren; horietatik 2.942 izan ziren euskaraz: % 12,50. Sail batetik besterako aldeak handiak izan ziren: Nekazaritza Sailean elkarrizketen erdiak euskaraz izan ziren; baina Ogasunean eta Gizarte Ekintzan %4 baino ez. Datuak behar bezala interpretatzeko jakin beharko genuke herritarrak euskaldunak ziren ala ez, zein adinetakoak ziren, ingurune euskaldunetakoak ziren ala ez... baina guzti horiek ez ziren jaso.

Edonola ere, euskaldun askok, batez ere adin batetik gorakoak direnean, administrazioa jotzerakoan gaztelaniaz egiten dutela ondorioztatu zen. Kontuan hartu behar da, bestetik, elkarrizketa askotan gaztelaniaz egiteko arrazoia langileak euskararik ez jakitea edo erraztasunik ez izatea izan zela ere.

4. IV plangintzaldia (2008-2012)

20 bat urte pasatu direnean Bizkaiko Foru Aldundiak langileek euskara ikasteko lehenengo plana egin zuenetik, badirudi plangintzaldi honetan ahalegin berezia egin nahi duela konpromisoak bere gain hartuz; behintzat, halaxe adierazi zuen ahaldun nagusiak bere izendapen egunean egin zuen hitzaldian: “Euskeragaz, bera egongo delako Bizkaiko Foru Aldundiaren barruan, hizkuntza normalizazioaren bitartez, eta bera izango da guztiok erabiltzen dugun hizkuntza gure Erakundearen arlo guztietan”.

4.1. Planaren helburu nagusiak

Administrazioan bi hizkuntzen erabileran berdintasuneranzko pausu eraginkorrak ematea izango da oraingo plangintzaldiaren helmuga. Erabilerari dagokionez, langileek, oro har, bi hizkuntzak maila bertsuan jakitea da Administrazioan elebitasun orekatu bat lortzeko lehen baldintza.

Euskararen ezagutzaren aurrerakada handia gertatu bada ere, Bizkaiko Foru Aldundia, oraindik nahiko urrun dago baldintza hori betetzetik. Izan ere, euskara lan-hizkuntza izateko, administrazio-atal bereko langile guztiek, behintzat, behar besteko ezagutza maila izan behar dute beren funtzioak euskaraz burutzeko.

Beraz, oraindik ere, langileak euskalduntzeak tarte zabala hartuko du.

Bi dira helburu nagusiak:

- a. Bizkaiko Foru Aldundiak herritarrekin izango dituen harremanetan, azken hauek aukeratuko duten hizkuntza, zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatzea.
- b. Bizkaiko Foru Aldundiko langileek aukeratuko duten hizkuntza, lan-hizkuntza izango dela bermatzea.

Helburu nagusi horiekin batera, zeharkako beste helburu batzuk ere badaude: euskararen ahozko erabilera areagotzea; euskara idatziaren erabilera areagotzea sorkuntzaren aldetik, itzulpenaren kaltetan; eta, langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea.

Plangintzaldi berriaren aurrean zenbait gogoeta

Hizkuntza gaitasunean egindako hobekuntza nabarmentzat jotzen bada ere, zenbait kontutan hausnarketa egiten da: euskara maila, langileen adina, hizkuntza ohiturak, langileen motibazioa eta gizarte presioa, esaterako.

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, hizkuntza eskakizuna lortua izateak ez du inola ere bermatzen lanari euskaraz ekiteko behar besteko gaitasuna; are gutxiago 1.H.E. edota 2.H.E. bera ere zalantzarikoa da sarritan. Maila hauek ez dakarte inondik ere euskaraz aritzeko erosotasun nahikoa eta honek oztopatu egiten du helburua.

Bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen batz besteko adina 46,2 urtekoa da. Horrek esan nahi du langile asko eta asko hizkuntza eskakizuna betetzetik

salbuetsita izango dela, eta beraz, lanean ari diren horiek lana gaztelaniaz egiten jarraituko dutela.

Hizkuntza ohiturei dagokienez, Aldundiko langileek orain arte gaztelania izan dute lan eta harreman hizkuntza; ez da erraz ikusten hizkuntza ohitura horiek aldatzea; kalitatezko zerbitzua eskaintzeko gaitasuna izan ezean, orain arte erabili duten hizkuntza erabiltzen jarraituko dute. Garrantzi gehiago ematen zaio emandako zerbitzuari; gutxiago, berriz, horretarako erabili den hizkuntzari.

Gizartean bertan ere aldaketa eragitea beharrezkotzat jotzen da: garrantzia eman beharko litzaioke zerbitzua euskaraz emateari eta hori kalitatezko zerbitzua ematearekin lotu beharko litzateke. Euskararen alde motibatzeak ere jokabidea alda lezake: administrazioak saritu egin beharko lituzke hizkuntza jokaera-aldaketak; nola edo halako errekonozimendua egin beharko litzaieke euskaraz aritzen direnei.

Gizartearen presioak ere lagun dezake hizkuntza jokaerak aldatzen; hala ere ez da ikusten momentu honetan egoera soziolinguistikoak behar adinako presiorik eragiten duenik eta Bizkaiko Foru Aldundiak gizarte jokabidean eragitea bere gain hartu beharko lukeela dirudi.

4.2. Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

Hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen dekretua

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2008ko abenduaren 30eko Gobernu Kontseiluaren batzarrean, Euskararen erabilera normalizatzeko 2008-2012 epealdirako plana onartu zuen, 2009ko urtarrilaren 16ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 10.zenbakian argitaratu zena. Plan berriak Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabileraren araudian aldaketa batzuk egiteko beharra sortu zuen, besteak beste nabarmendu beharko dira mikroplanak ezartzearen ondorioz izango zirenak, eta ondorioz dekretu berria egitea egokitzat jo zuten: 22/2009 Foru Dekretua. Edozein kasutan, mikroplanak egokitzetik haratago joan ziren aldaketa horiek, balorazioan azalduko dudanez. Hona hemen aurreko dekretuarekiko aldaketa nagusiak:

1. artikulua. Zerbitzu hizkuntzak

Lanpostuko derrigorrezko hizkuntza eskakizuna egiaztatuta daukaten foru langileei zerbitzu hizkuntzetan aritzeko gaitasuna aitortzen zaie; hortaz hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, beti ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eskura jartzen dizkieten giza baliabide zein baliabide materialak erabili ahal izango dituelarik. Hau berrikuntza da, izan ere, orain arte Aldundiak herritarrekin dituen harremanetan bi hizkuntzen erabilera bermatu behar zuen baina ez da zehazten izan nola.

1. Ahozko harremanak

Jendaurreko izaera duten atalak elebidun izendatzeaz gain, ataleko lanpostu guztiei 3.HE eta derrigortasun-data ezarriko zaie. Hau ere berrikuntza da; izan ere, orain arte euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz berba egin dionean, inguruko lankide

elebidunei eskatu die laguntza; hemendik aurrera, ordea, euskaraz egiteko gai izango dela ulertzen dut.

2. Idatzizko harremanak

Orain arte bezala: orokorrean euskaraz eta gaztelaniaz; hartzaileak euskaraz jardutea hautatu duenean, euskararen aldeko hautua egingo da.

Jasotako dokumentu bati erantzuteko, jaso den hizkuntzan egingo da (gaztelaniaz badago gaztelaniaz, euskaraz badago euskaraz, eta elebietan badago elebietan).

Horretaz gain, komunikazio telematikoen bidez jasotakoekin, lehenengo herritarrak aukera izan behar du tramitazioa euskaraz zein gaztelaniaz egiteko eta herritarrak aukeratutako hizkuntza horretan egingo da.

2. artikulua. Lan hizkuntzak

Hemen ere, aldaketa nabarmenak izan dira; orain arte dokumentu bakoitzaren ezaugarrien eta zabalkundearen arabera erabakitzen zen zein hizkuntza erabili. Orain, ordea, langileei aitortu egiten zaie lan hizkuntza aukeratzeko eskubidea. Euskararen aldeko aukera egiten duenak, gainera, bermatuta izango du bere lana euskara hutsean egin ahal izango duela eta horretarako Aldundiak behar diren baliabideak jarriko ditu. Administrazio-prozeduran, hizkuntza dela eta, une batean aurrera egiteko oztopoak agertuko balira, hizkuntza arazoa duen pertsona edo atala arduratuko da konponbide ematen. Inoiz ez da atzera botako itzulita bidal dezaten.

3. artikulua. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko komunikazio administratiboak

Bi hizkuntza ofizialetan idatzita bideratuko dira. Baina EraMi (erabilera sustatzeko mikroplana) ezarri den administrazio-atal elebiduna denean, eta euskaraz jarduteko aukeraren alde egin dutenean, euskara hutsez izango dira.

Langileak harremanak euskaraz bakarrik izan nahi dituela beren beregi adierazten duenean ere, euskaraz bakarrik bideratuko dira.

4. artikulua. Beste herri administrazioekiko harremanak

Lurralde berekoekin gutxienez (aldaketa) bi hizkuntza ofizialetan; baita euskara ofiziala den lurraldeetakoekin ere. Harremanak euskaraz izan nahi dituela adieraziz gero, hizkuntza horretan bakarrik (aldaketa).

6. artikulua. Langileen etengabeko prestakuntza

EraMi bat ezarrita dagoen ataletan lehenetasun osoa izango du gaiak euskaraz emateak. Beraz, trebakuntzaren arduradunek saiatu beharko dute gai gehienak euskaraz ere emateko bideak jartzen.

Urteko prestakuntza egitasmoa egiterakoan kontuan hartuko da Aldundiko langileek hizkuntza-gaitasunean izan duten bilakaera. Euskaraz egin ahal izango diren ikastaroen eskaintza bilakaera horren arabera izango da.

9. artikulua. Argitalpenak

Testu legal eta arau-bildumak ere ele bietan argitaratuko dira. Bestelako argitalpenei dagokionez, liburuak, ikerketa-lanak, doktoretza-tesiak, eta abar, Bizkaiko Foru Aldundiak euskaraz ere sortu eta argitaratzea lehenetsiko du.

10. artikulua. Tresna eta aplikazio informatikoak

Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzuetan erabiltzeko beren beregi sortzen diren programa edo tresna informatikoak prestaturik egon behar dira, bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko. Programa informatiko komertzial edo orokorrak direnean, ez direnean sortu beren beregi Aldundiaren lanerako, euskarazko bertsioa egonez gero, bertsio honi emango zaio lehentasuna EraMi bat ezarrita daukaten ataletako lanpostuetan jartzeko; baita eskatzen duten langileei ere.

13. artikulua. Iragarpenak, publizitatea eta kanpainak

Berrikuntza: kanpainaren edukiak eta esloganak asmatzerakoan kontuan hartuko dira bi hizkuntza ofizialen ezaugarriak, hau da, gaztelaniaz funtzionatzen duten testuak euskaraz porrot egiten duela gerta ez dadin. Bi hizkuntza ofizialetan; euskarazko hedabideetan euskara hutsez. Horretarako, baldintza moduan jarriko da kanpainaren mezua bi hizkuntzetan sortua izatea, hots hizkuntza batean sorturikoaren itzulpena ez da baliozkotzat emango.

4.3. Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak

Atal elebidunak

Jendaurreko izaera duen atalaren funtzio nagusia herritarrari ahoz zein idatziz harrera egitea da, hau da, informazioa ematea, zalantzak argitzea, administrazio-tramiteetan laguntzea eta abar. Beraz, jendaurreko ataletan zerbitzu-hizkuntzak beste ataletan baino garrantzi handiago hartu beharra aurreikusi zen eta ondorioz, atal horretako langileek bi hizkuntza ofizialetan behar besteko gaitasuna izan behar dute beren funtzio nagusia ondo bete ahal izateko.

Gogoetak egiterakoan aipatu da, jada, hizkuntza eskakizun guztiek ez dutela bermatzen euskara zerbitzu-hizkuntza izateko behar den hizkuntza-gaitasuna. Hori dela eta, jendaurreko ataletan herritarrekin harremanak zituzten pertsonen lanpostu guztiei **3. HE** esleitu zitzaaien. Gauza bera jendaurrekoa ez den ataletan lanposturen batek betetzen duen funtzio nagusia herritarrari harrera egitea bada.

Sailetako egitura organikoetan aldaketa nabarmenak egon ziren azken legealdian; ondoko laukian jasotzen dira 2008an Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa-egitura osotzen zuten administrazio-atal guztiak, sailez sail, izaeraren eta izenaren arabera.

Izena	Elebidunak	Atalak	Elebidun%
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	1	3	33.33
Nekazaritza Saila	70	95	73.68
Gizarte Ekintza Saila	27	28	96.42
Kultura Saila	31	31	100.00
Ogasun eta Finantza Saila	48	107	44.85

Herri Lan Saila	12	32	37.05
Udal Harreman eta Herri Administrazio Saila	42	59	71.18
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila	15	15	100.00
Ingurumen Saila	17	18	94.44
Hirigintza eta Garraio Saila	12	16	75.00
Lan eta trebakuntza Saila	9	9	100.00
Bizkaiko Foru Aldundi osoa	284	413	68.76

Kontuan hartu behar dugu administrazio-atalak elebidunak direla beren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan betetzeko gai direnean. Teorian horrela bada ere, praktikan ez da beti horrela gertatzen, besteak beste, administrazio-atal bat elebidun izendatzeko kontuan hartzen dugun ezaugarria bere izaera delako eta ez hizkuntza-gaitasuna.

Bestalde, nahiz eta hizkuntza-gaitasuna izan, atal elebidun izendatzeak ez dakar, berez, administrazio-atal horren lan-hizkuntza euskara izatea. Hori bakarrik gertatuko da atal horretako kideek hala izateko borondatea agertzen badute.

Derrigortasun datak

Eutsi egin zitzaion aurreko plangintzaldiko irizpide orokorrari, elebiduntzat harturiko administrazio ataletako lanpostu guztiei derrigortasun data esleitzeko irizpideari, alegia. Beraz, ondoko hauei esleitu zitzaion derrigortasun data:

- administrazio atal elebidunetako lanpostu hutsei,
- lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatu zuten titularren lanpostu guztiei, eta
- atal horietakoak izanik ere, III. plangintzaldian derrigortasun datarik esleitu ez zitzaion lanpostuei.

Aurreko plangintzaldietan aipatutako salbuespenak jarri ziren.

Jarraian, IV. plangintzaldirako derrigortasun data berriak esleitzeko proposamena egin zen, 2008ko uztaileko 16ko lanpostuen zerrendari zegokiona.

Ondorengo laukian laburbiltzen da derrigortasun data berrien kopuruak eta portzentajeak, sailez sail.

Sailak	<i>D.d</i> berriak	<i>D.d.</i> 2008an	<i>D.d</i> 2013 an	Lanpostua k Guztira	Sailare kiko % (2013)	2008ko %ekin alderatuz
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	0	8	8	19	42,10	----
Nekazaritza Saila	17	178	195	315	61,90	+ 5,39
Gizarte Ekintza Saila	12	278	290	330	87,87	+ 3,63
Kultura Saila	14	166	180	256	70,31	+ 5,47

Ogasun eta Finantza Saila	53	529	582	1004	57,96	+ 5,27
Herri Lan Saila	18	32	50	222	22,52	+ 8,11
Udal Harreman eta Herri Administrazio Saila	54	306	360	718	50,13	+ 7,51
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila	6	42	48	60	80,00	+ 10,00
Ingurumen Saila	12	43	55	81	67,90	+ 15,82
Hirigintza eta Garraio Saila	15	34	49	91	53,84	+ 16,48
Lan eta Trebakuntza Saila	2	32	34	38	89,47	+ 5,26
Bizkaiko Foru Aldundia	203	1648	1851	3.134	59,06	+ 6,48

4.4. Hizkuntza-gaitasuna: Jarduera Plana

Planak bi eratako jarduera-egitasmo zehazten zituen: hizkuntza gaitasuna lortzera zuzentzen zena eta euskara lan eta zerbitzu hizkuntza ere izan zedin trebatze eta sustatzera bideratzen zena.

Hizkuntza-trebakuntza

Aurreko plangintzaldietan bezala helburu hau lortzeko euskara-ikastaroak proposatzen dira. Plan hau Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztiei dago zuzenduta. Hala ere, Aldundiko langile guztiek ez dute erakundearekiko kontratu-harreman bera, eta horren ondorioz aukerak eta lehentasunak ezberdinak dira, langile bakoitzak duen kontratu-motaren arabera eta lanpostu bakoitzak ezarria duen hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datarekiko egoeraren arabera.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Plangintzaldi honetan ere, aurrekoan bezala, Euskararen Erabilera Sustatzeko jarduera-egitasmoak bi modulu dauzka: Erabilera Sustatzeko Modulu eta Birziklatze-Modulu. Euskararen mendebaldeko euskalkiak, "bizkaiera" deritzonak, funtsezko tokia izango du bi moduletan, betiere modulu bi horietan egiten diren jardueretara doazen pertsonen trebakuntza eta komunikazio betebeharreari erantzunez.

Aldundiak aurreko plangintzaldian jorrotutako bideari ekitea erabaki zuen jada abian dagoen plangintzaldi honetan (2008-2012): EraMi edo Erabilerarako Mikroplanekin jarraitzea, aurreko bidea baino egokiagoa izan zitekeelakoan bereziki hizkuntza ohituretan eragiteko.

Administrazio-atal batean EraMi bat ezartzearen ondorioz gerta daiteke lanpostu batzuei hizkuntza eskakizuna aldatu behar izatea, ataleko kideek bete

behar dituzten funtzio eta zereginak euskaraz erosotasunez egin ahal izateko. Hori bermatzeko lanpostu guztiei 3. HE esleitu ahal izango zaie.

Plangintzaldiaren hasieran egindako gogoetaren ondorioz, Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren barruan beste hiru proposamen ageri zaizkigu:

a) Erakundeko pertsonalaren motibazioa sustatzea

Motibazioan eraginez gero, uste da langileek jokabidea aldatu eta aldeko jarrera hartuko luketela, esaterako, administrazio-ataletako lan-hizkuntza bihurtzeko ahaleginak eginez. Motibazioan eragiteko, euskara erabiltzeko ahaleginaren gratifikazioa edo errekonozimendua jotzen da aldagai garrantzitsutzat.

Bizkaiko Foru Aldundiak EraMi bat ezartzen den ataletako partaideek euskara lan-hizkuntza izateko egiten duten ahalegina aintzat hartzea erabakitzen du; izan ere, EraMi bat ezarrita daukaten administrazio-atalek zerbitzu-kalitate handiagoa ematen dute gainerakoek baino: administrazio-prozeduran, kostuan zein denboran aurrezte eta aurreratzea dakarte.

b) Gizarte presioa sustatzea.

Gizarte presioak lotura handia du inguruaren egoera soziolinguistikoarekin eta, zoritxarrez, Bizkaiko Foru Aldundiak eragina duen eremuan dagoen egoera soziolinguistikoak oso gizarte presio ahula eragiten du. Gizartearen presioa hizkuntza normalizatorako elementu eraginkortzat jotzen da eta Bizkaiko Foru Aldundia presio hori sustatzeko ahalegina egiteko erabakia hartu du.

Gizarte presioa, finean, gizarte exigentzia maila da; exigentzia horri erantzuteko Administrazioak bere egiturak egokitu egin beharko ditu eta eskakizun horri erantzun egokia ematen asmatu beharko du.

Zenbait neurri proposatu dira horretarako:

- Oro har, Bizkaiko herritar guztiak Aldundiko “bezeroak “ badira ere, sail bakoitzak bere bezeria propioari zuzentzen dizkio bere jarduera eta zerbitzuak.
- Sail bakoitzak barneratu behar du, berari dagokiola bere bezeriaren artean gizarte presioa sustatzea eta zeregin hori ez dela hizkuntza arloan ari diren arduradun, teknikari eta bestelakoen gaia.
- Edozein plan, proiektu, laguntza, eta abar ezarri nahi denean, hasiera-hasieratik kontuan hartu behar da hizkuntza irizpidea.
- Sail bakoitzak sailarekiko harremanetan (idazkiak, eskabideak, dokumentazioa, e-mailak, bilerak, elkarrizketak...) euskara erabiltzen duten norbanako zein talde, enpresa, elkarte eta abarren erregistroa egingo du, ahal den neurrian.
- Sailak arreta bereziarekin jokatuko du euskaldun erregistroan daudenekin: aldiro-aldiro beraiekin harremanetan jarriko da; zenbait proiektuetan lehenetsuna eman eta Aldundiak atera edo eskuratzen dituen euskarazko produktuak dohainik edota baldintza berezietan helaraziko dizkie...

4.5. Hizkuntza Normalizatorako Batzorde Nagusia

Hizkuntza Normalizatzeko planaren jarraipena egiteko batzorde bat eratzea beharrezkotzat jo da azken aldi honetan. Batzorde honek sailarteko izaera izango du.

Batzorde horren osaera ondokoa izango da:

- Batzordeburua: Kultura diputatua.
- Batzordeburuordea: Euskara Sustatzeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Hizkuntz Normalizazio Ataleko burua.
 - Hizkuntz Normalizazioaren arduraduna.
 - Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzaren arduraduna
 - Sail bakoitzeko Zerbitzu Orokorreko Zerbitzuko burua / teknikaria
- Idazkaria: Euskara Sustatzeko zuzendaritzako teknikari bat, hitzarekin baina botorik gabe.

Batzorde hau urtean behin bilduko da eta ondokoak izango ditu zereginak:

- Saitetako hizkuntza normalizazioaren egoera aztertzea eta azterketa hori oinarri hartuta, proposamen berriak egitea.
- Plana aurrera ateratzeko sor daitezkeen eragozpenak gainditzen laguntzea.
- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak sailetan betetzen direla zaintzea.

4.6. Langileen artean egindako inkesta

2009an euskararen erabilerari buruzko inkesta bat egin zen Aldundiko intranetaren bidez. Galderak ondoko hauek:

1. Lanean, zure inguruan, euskara erabiltzen da?
2. Zer deritzozu euskara lan-hizkuntza izateari? Hizkuntza Normalizatzeko Planek izan dute eraginik?

Inkestaren emaitzetan ez da adierazten zenbat lagunek erantzun zuten; hala ere, erantzun zutenen artean %26k euskara erabiltzen omen dute lanean. Eta horietatik %61k ahoz eta idatziz.

Badirudi, hortaz, hizkuntz ohituretan aldaketaren bat egin dela, eta, era berean, baieztatzen da aspaldi honetako pertzepzioa: Bizkaiko Foru Aldundian gero eta euskara gehiago entzuten dela. Langileen %25k euskara gero eta gehiago entzuten dela bere sailean adierazi zuten.

Bestetik, %7k esan zuen beren administrazio-ataletan ohikoa dela euskaraz egitea. Ehuneko hori txikia izan arren, ezin ukatu urrats bat dela normalizazioaren bidean. Urteetan elebakarrean, gaztelaniaz hain zuzen ere, lan egin duen Erakunde batean, lan-gune batzuetan, gutxi izan arren, euskara ohiko hizkuntza bihurtu izanak efektu biderkatzailea izan dezake hizkuntz normalizazio prozesuan, elebitasun orekatuaren helburua lortzeko bidean.

Inkestan bertan iritzia eman zutenen artean %41k euskaraz egiten zuen gogoeta.

5. Balorazioa

Balorazioa egiteko, lau plangintzaldietan atal bakoitzean izandako bilakaera eta aurrera begira kontuan izatekoak ikusiko ditugu; ondoren, balorazio orokorrean, momentu honetan non gauden aztertuko dugu, eta, horretarako, planaren ahuleziak, indarguneak eta mehatxuak eta aukerak ikusiko ditugu.

Xede nagusia eta helburuak

Plangintzaldi guztietan planaren xede nagusia administrazioaren normalizazioa lortzea izan da; helburuak ere parekoak: bata langileen hizkuntza-trebakuntza eta bestea, euskararen erabilera sustatzea. Dena den, helburu biok ez dute indar bera izan aldi guztietan. Hasieran, hizkuntza-trebakuntzari ekin zitzaion buru belarri; baina denbora aurrera joan ahala, eta bereziki langileen trebakuntza hutsak ez duela erabilera bermatzen ikusi ondoren, bide honetan ahalegin berezia egin behar zela erabaki zen. Oraindik hastapenetan baino ez bagaude ere, esango nuke laugarren plangintzaldian apustua zehaztuxeago ageri zaigula: euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izango dela bermatzea.

Helburu horiez gain, beste zeharkako helburu batzuk ere aipatzen dira azken plangintzaldi honetan; baina, iruditzen zait, hauetaz aparte, helburu zehatzagoak ere behar direla. Egiazko normalizazioa lortu nahi bada tarteko helburuak jarri behar dira, helburu neurgarriak: denboran, bitarteko inflexio puntu batzuk finkatu beharko lirake. Gainera, helburuon eta berauen betetze mailaren berri izan beharko lukete langile guztiek; baita Bizkaiko herritarrek ere.

Atal elebidunak

Atal elebidunak erabilera normalizatzeko oinarri edo euskarri gisa hartu ziren. 86/1997 Dekretuari kasu eginez Bizkaiko Foru Aldundian jendaurreko administrazio unitate guztiak, gazteriarekin harremana dutenak eta gizarte mailakoak elebidun izendatu ziren bigarren plangintzaldian, salbuespenak salbuespen (gehiengo erdalduneko zonaldeetako atalak, langileen hizkuntza egoera oztopo zenean).

2005ean, Bizkaiko Foru Aldundiak onartu zuen Plan berria, 1999ko Planean elebidun izendatutakoei gehitu zitzaizkien ordura arte izaera orokorreko gisa hartuak izan ziren atal batzuk. Gogora dezagun atal orokorrak beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean burutzen dutela; multzo honetatik Aldundiko langile guztiei edo sail barruko guztiei zuzendutako zerbitzu horizontaleko administrazio-atalak elebidun izendatu ziren. Hau aurrerakadatzat jo zen, euskara zerbitzu hizkuntzat ez ezik, lan-hizkuntzat ere hartua izan zedin.

Gainontzeko atal orokorretako batzuk ere elebidun izendatu ziren, beti ere, atala osatzen zuten langile guztiek zegokien HE egiaztatua zutenean.

Horretaz gain, hirugarren plangintzaldi honetan, aurreko planetan gehiengo erdalduneko zonetan zeuden ataletan salbuespena egin bazen ere, ataleko lanpostuen titularrek hizkuntza eskakizuna egiaztatuta zuten kasuetan, elebidun izendatu ziren. Laugarren plangintzaldian aurreko irizpide berberak jarraitu ziren.

Hona hemen plangintzaldiz plangintzaldiko datuen alderaketa:

Saila	Atal elebidunak		
	II. (%)	III. (%)	IV. (%)
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea	1 (50)	1 (50)	1 (33)
Nekazaritza Saila	49 (64,47)	66 (76,74)	70 (73,68)
Gizarte Ekintza Saila	14 (53,85)	25 (96,15)	27 (96,42)
Kultura Saila	16 (61,53)	24 (96,55)	31 (100)
Ogasun eta Finantza Saila	34 (34,69)	41 (41,84)	48 (45,79)
Herri Lan Saila	5 (14,29)	10 (28,57)	12 (37,05)
Udal Harreman eta Herri Administrazio Saila	12 (36,36)	19 (52,78)	42 (72,88)
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila	9 (75)	12 (100)	15 (100)
Ingurumen Saila	3 (16,67)	15 (83,33)	17 (94,44)
Hirigintza eta Garraio Saila	3 (21,43)	5 (35,71)	12 (75)
Lan eta Trebakuntza Saila	4 (33,33)	10 (83,33)	9 (100)
BIZKAIKO FORU ALDUNDI OSOA	150 (42,61)	228 (63,04)	284 (68,76)

Lehenengo plangintzaldiko datuak ez dira agertzen, aldi horretako datuetan behar besteko zehaztasunik ez dago eta. Datuoi erreparatuta, nabaria da atal elebidunen kopuruan izandako gorakada; kezkarria da, ordea, batez bestekotik behera dauden sailen egoera: bereziki Herri Lanak edota Ogasuna bera.

Teorian, atal elebidunek beraiei dagozkien funtzioak erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan bete ditzakete, eta, beraz, atal hauetan euskara zerbitzu eta harreman hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere bada. Edozein kasutan, atal elebidun izendatu izanak praktikan ez dakar atal horretan euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea. Hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko dekretuetan ageri dira zenbait neurri; baina neurri hauek hutsaren hurrengoko balioa dute langileek beraiek ere ez badituzte ezagutzen, are gutxiago, betetzen.

On litzateke, elebidun izendatu diren atal guztietako langileek zein egoeratan dauden jakitea eta beraiekin adostea zein izango diren aurrera emango diren pausuak euskara erabiltzeko. Atal hauetan EraMi-ak jarri beharko lirateke abian eta euskara teknikariak, trebatzaile, itzultzaile eta langileekin batera jarduera protokoloa zehaztu beharko luke.

Protokolo horretan zehaztu daiteke nork, norekin, zer, noiz... egingo duen euskaraz eta aldiro-aldiro ebaluatu beharko litzateke zein mailatan bete den eta zein egokitzapen egin, hala behar izanez gero. Horrela, erabateko normalizazioa

lortu arte. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dituen zerbitzu guztietan euskara ziurtatu egin beharko luke.

Protokolo horretarako proposamen bat izan daiteke gutxieneko erabilera kuota ezartzea. Kuota hori kalkulatzeko honelako formula bat erabil daiteke: euskaldunak + ia euskaldunak. Erabilera kuota edozein izanda ere, hamar urteko epean, esaterako, kuota hori %100ekoa izango da. Bizkaiko Foru Aldundiak administrazio jarduera guztiak erregulatu behar ditu euskaraz izan daitezen.


Derrigortasun indizea/ derrigortasun datak

Lanpostuak, derrigortasun datak eta derrigortasun indizeak

	1992ko uztailean (1990-95)	1999ko uztailean (1999-02)	2005eko maiatzean (2003-07)	2.009ko maiatzean (2008-12)
Lanpostuak guztira	2.907	2.879	3.134	3.255
Derrigortasun data duten lanpostuak	779	983	1.648	1.970
Derrigortasun indizea	%26,79	%34,12	%52,58	%60,52

Lehenengo planetik azkenengora indizea bikoiztu eta handik gora ere hazi da. Indize honek adierazten digu zein den derrigortasun eskakizunen portzentajea; plangintzaldia hasten deneko erroldako datuak erabiltzen dira indize hau kalkulatzeko.

Hona hemen lanpostuen eta derrigortasun daten bilakaeraren grafikoa:



Grafiko honetan ikusten dugunez, lanpostuak eta derrigortasun datak elkarrengana hurbildu badira ere, egin beharreko ahalegina oraindik handia da biak maila berean egoteko eta horrela benetako normalizazioa lortzeko.

Ikus dezagun derrigortasun data horiek nola banatu diren hizkuntza eskakizunen arabera:

	1992	2004	2009
1.H.E.	53	27	16
2.H.E.	476	441	739
3.H.E.	243	599	1.215
4.H.E.	7	5	
GUZTIRA	779	1.072	1.970

Argi dagoenez, derrigortasunari begira 3.H.E. dutenen kopurua hazi da gehien. Honen arrazoia, azaldua dugu jada: langileek beren zereginak euskaraz bete ahal izateko 3.H.E. behar dute askotan. 2.H.E. izateak ez du behar besteko maila bermatzen, are gutxiago 1.H.E. izateak. Iruditzen zait, gainera, joera honi ekin beharko litzaiokeela eta lana euskaraz egin ahal izateko gutxieneko maila bermatu. Ez zait iruditzen ahozkoan 3.H.E.eko maila baino baxuagoa duena euskaraz lan egiteko gai izan daitekeenik, behintzat, erosotasun nahikoan; ondorioz, eroso ez dagoenak nekez erabiliko du hizkuntza hori. Idatzizkoan beharbada, maila baxuagoak ere onar litezke, eginkizuna zein den.

Derrigortasun datak esleitzeko irizpide nagusiari eutsi egin zaio plangintza guztietan: atal elebidunetako lanpostu guztiei ezarri zaie derrigortasuna. 3. Plangintzaldian, gainera, erabaki zen derrigortasun data zuen plazarik ez zedila bete lanpostuari zegokion eskakizuna ez zuen langile baten bidez; horrez gain, titularrak hala eskatuz gero, bere lanpostuari derrigortasun data jar zekioken.

Ikus ditzagun, orain, derrigortasun datak sailez sail:

Derrigortasun daten bilakaera (ehunekoetan):

	1999	2004	2008	2013
Sailak	%	%	%	%
Ahaldun Nagusiaren Kabinetea		%71,43	%42,11	%42,10
Nekazaritza	%36,48	%36,65	%56,51	%61,90
Gizarte Ekintza	%52,66	%49,62	%84,24	%87,87
Kultura	%49,30	%49,39	%64,84	%70,31
Ogasuna eta Finantzak	%44,42	%44,03	%52,69	%57,96
Herri Lanak	%8,36	%14,49	%14,41	%22,52

Herri Administrazioa (*+ Udal Harremanak)	%18,83	%16,97	/*42,62	/*50,13
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapena	%49,41	%54	%70	%80
Ingurumena	%32,98	%20,73	%53,09	%67,90
Hirigintza eta Udal Harremanak (*+Garraio)	%38,64	%25,35	/*37,36	/*53,84
Lana eta Trebakuntza	%19,44	%32,61	%84,21	%89,47
GUZTIRA	%34,12	%34,78	%52,58	%59,06

Derrigortasun daten igoera nabaria da, bereziki zenbait sailetan: Lana eta Trebakuntzan, Gizarte Ekintzan, Kulturean, Berrikuntza eta Ekonomia Sustapenean, Ingurumenean... Gainera, gogoan izan behar dugu laugarren plangintzaldirako aurreikusitako derrigortasun indizea %60,52koa dela. Hortik behera kokatzen diren sailak marra gorriaren azpitik daude. Beraz, aztertu egin beharko litzateke lanpostu bakoitzaren egoera, behintzat, indizeak markatzen duen horretara heltzeko.

Horretaz gain, lehen esan dugun bezala, normalizazio osoa lortu arteko epeak jarri beharko genituzke eta epeka zehaztu zein izango den derrigortasun indizea, eta derrigortasun datak.

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

Hasierako plangintzaldietan irizpide batzuk jarri ziren, horien artean:

- Euskara zerbitzu-hizkuntza izatea. Herritarrei bi hizkuntza ofizialetan ematea zerbitzua.
- Beste herri administrazioekiko harremanak bi hizkuntzetan izatea eta euskaraz izan daitezen sustatzea.
- Euskara lan eta harreman hizkuntza izatea Aldundian.

Hala ere, hauek irizpide orokorrak ziren eta zehaztasunak falta ziren. Honen harira 2007an hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko dekretua* onartu zen. Aurreko irizpideez gain, dekretu honetan zenbait urrats baliagarri eman ziren:

- Aldundiko langileak, lehenik euskaraz mintzatzen ahaleginduko ziren.
- Langileak jakin ezean, euskara dakien norbaiten laguntzaren bila joan beharko zen, herritarren eskubidea bermatzeko.
- Ahozko mezuak eta euskaraz eta gero gaztelaniaz.
- Barruko komunikazio administratiboak, eredu normalizatuen arabera direnean, euskaraz edo bi hizkuntzetan.
- Bizkaiko Aldundiaren zerbitzuetan erabiltzeko beren beregi sortuko ziren programa edo tresna informatikoak prestatu egon beharko ziren, bi hizkuntza ofizialetan berdinean lan egin ahal izateko. Bi hizkuntzetan aritzeko prestatu ez zeuden programak, Euskara

Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak egutegi bat egingo zuen, tresna informatiko horiek egokitu eta prestatzeko.

Edozein kasutan, Gipuzkoako Diputazioan 2004an onartutako 21-04 Dekretuarekin alderatuz gero (parekoak dira), esan daiteke Gipuzkoako Dekretuaren 3. Kapituluari begiratuta, gabeziak dituela Bizkaikoak. Gipuzkoako Diputazioko 3.kapitulu horretan halakoak azaltzen ziren:

- Departamentu bakoitzeko ordezkari bat Dekretuan azaltzen diren gaiez arduratzeko.
- Departamendu bakoitzak, urtero, plan bat egiteko agintzen zen, bertan helburuak eta ekintzak zehaztuz.
- Urte amaieran, departamendu bakoitzak, bere planaren ebaluaketa egingo zuen.

Horretaz gain, hizkuntza ofizialen erabilera kudeatzeko batzordea eratzen zen. Batzorde horren partaideak honako ordezkariak izendatu ziren; departamenduko ordezkari bat eta sindikatuetatik bi ordezkari. Beraien zereginak honakoak:

- Aurkeztutako proiektuen arabera, urteko plana informatu eta proposatu Diputatuen Kontseiluak onar dezan.
- Plana kudeatu eta gainbegiratu.
- Urteko planari buruzko ebaluaketa, departamendu bakoitzak aurkeztutako datuen arabera.
- Diputatuen Kontseiluari aurkeztu urteko planaren ebaluaketa.
- Batzordea batuko da bi aldiz urtean, plana onartzerakoan eta ebaluaketa egiterakoan.

Ikusten denez, 3. Kapitulan ez zen bakarrik Dekretuaren betetze-egoeraz arduratzen, baizik eta proposamenak, ebaluaketak, txostenak eta, ere egiten ziren, benetako jarraipena eginez.

Bizkaiko Foru Aldundian ez dago halakorik. Hemen, 2009an, mikroplanak ezartzearen ondorioz, neurri berriak hartu behar zirela-eta, beste dekretu bat* onartu zen. Hala ere, aurrerapausuak eman beharrean, badirudi atzerapausuak eman direla; ikus ditzagun 2007ko dekretutik 2009kora dauden aldeak:

1. 2007ko dekretuan adierazten zen hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen langilea ahaleginduko dela herritarrari lehenik euskaraz berba egiten, eta gero administratuak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko duela. 2009ko dekretuan ez da aipatzen zein izango den lehenik erabiliko den hizkuntza.

2007koan adierazten da euskaraz ez dakien langile bati herritarren batek euskaraz berba egiten dionean, edota euskaraz jardun nahi duela adierazten dionean, langile horrek bere inguruko langile elebidunei eskatuko diela laguntza. 2009koan ez da horrelakorik aipatzen, ustez (hala pentsatu nahi dut), jendaurreko ataletako langile guztiek izango dutelako gaitasun nahikoa.

2. 2009ko dekretuan esaten da BFAk dokumentua jaso eta erantzun behar duenean, jasotako hizkuntza horretan erantzungo diola (gaztelaniaz jasotakoari gaztelaniaz, ele bietan jasotakoari ele bietan eta euskaraz

jasotakoari euskaraz). 2007koan ez da aipamen hori egiten baina irizpideei jarraituz, iruditzen zait ele bietan behintzat, edo euskara hutsean erantzungo dutela esan nahi dela.

3. Lan hizkuntzetan, badirudi 2009ko dekretuan aurrera pausuak eman direla euskararen aldeko aukera egiten duten langileen eskubideak babesteko: bermatuta izan behar dute bere lana euskara hutsean egin ahal izango dutela.
4. Barruko komunikazioari dagokionez, 2007ko dekretuan esaten da euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzita bideratuko direla eredu normalizatuen arabeko komunikazioak. 2009ko dekretuan bi hizkuntzetan joango direla esaten da; EraMi-ak ezarri diren ataletarako baino ez da gordetzen euskara hutsezko komunikazioa; edo langileak harremanak euskaraz bakarrik izan nahi dituela beren beregi adierazten duenerako.
5. Langileen etengabeko prestakuntzaz aritzean, 2007ko dekretutik 2009ko dekretura murrizketak egin dira; 2009ko dekretuan esaten da EraMi bat ezarrita dagoen ataletan lehentasun osoa izango duela gaiak euskaraz emateak. 2007ko dekretuan, ordea, esaten da eskaintzan euskaraz edo gaztelaniaz aukeratzea izango dutela ahal den neurrian eta langilearen hizkuntza aukera errespetatzeko ahalegina egingo dela, horretarako horren ardura duen sailak irtenbide zehatz bat aurkitzen saiatu beharko duela. Hortaz, euskararen aldeko hautua zabalagoa da.
6. Tresna eta aplikazio informatikoei dagokienez, 2007ko dekretuan esaten da erabiltzen diren programa informatikoak prestaturik ez daudenean euskaraz lan egin ahal izateko, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak egutegi bat gertatuko duela tresna informatiko horiek egokitu eta prestatzeko. 2009ko dekretuan, ordea, euskarazko bertsioa dagoenean eta EraMi bat ezarrita daukaten ataletan ematen zaio lehentasuna euskarazko bertsioari. Ez da aipatzen programaren egokitu behar izateari buruzko ezer (sortu behar bada beren beregi BFAn erabiltzeko orduan bai, baina hori aurreko dekretuan ere).

**Aipatu diren dekretuen berri zehatza izateko lan honen bukaeran ageri da noizko aldizkari ofizialetara jo daitekeen.*

Hizkuntza-gaitasuna: Jarduera Plana

Jarduera planean bi atal ditugu:

- Hizkuntza-trebakuntza. Beronen bitartez, langile bakoitzak dagokion hizkuntza eskakizuna eskuratu ahal izango du.
- Erabilera Sustatzeko Plana. Behin eskakizuna lortuta, lanpostuko zereginak euskaraz ere egin ahal izaten lagunduko diona.

Hizkuntza-trebakuntza

Hizkuntza-trebakuntzari dagokionez, esan liteke hasierako planetan lehentasuna eman zitzaiela derrigortasun data plangintzaldiaren barruan zutenei; eta ondoren, atal elebidunetakoei; bereziki lanpostu finkoa zuten langileei. Hirugarren planean, trebakuntza hau zabaldu egin zen, eta, teoriarik, langile guztiei eman zitzaien planaren barruan ikastaroak egiteko aukera. Hala ere, praktikan lehentasuna eman zitzaien derrigortasun-data zutenei eta goragoko hizkuntza-eskakizuna zutenei.

Trebakuntzan, hainbat ikastaro mota eskaintzen dira: egunean bi ordutakoak, trinkoak, udako ikastaroak... Luze joko liguke aztertzea lan egoeraren arabera zein eratako ikastaroak egin daitezkeen. Honetaz gain, ikastaro hauen egokitasuna ere aztertu egin beharko genuke; baina, batetik, ez dugu daturik, eta, bestetik, gai hau sakontzeko, beharbada, beste azterketa-lan bat egin beharko genuke.

Kontua zera da: Bizkaiko Foru Aldundiak langile guztiek, edozein kontratu mota dutelarik, euskaraz egiteko gai izatea bermatu behar duela; euskararen irakaskuntza bermatu behar du eta behar denean langileak birziklatzeko neurriak sustatu. Hautaketa prozesuan ere euskara ezagutzen dutela ziurtatu beharra dago.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

Euskararen Erabilera Sustatzeko planei dagokienez, zein eratako ahaleginak egin diren aztertuko dugu. 1996 aldera hasi zen Bizkaiko Foru Aldundian Erabilera Sustatzeko lehen Plana, hain zuzen ere, Nekazaritza Sailean. Esana dugunez, sail horretan egokitzat jo zen hizkuntza-egoera, izan ere, bertoko euskaldun zahar batzuk lan zein zerbitzu-hizkuntza gisa erabiltzen zuten, jada; eta, gainera, uste zen herritar askok euskara egingo zutela.

Erabilera sustatzeko tresna gisa, erabilera taldeak eta saioak jarri ziren abian. Taldeetan ahal zela zerbitzu edota atal bereko jendeak hartuko zuen parte eta saioetan landuko zirenak lanerako lagungarri izango zitzaizkien. Saiok astean bitan ematen ziren.

Nekazaritzako saiakerak, dakigunez, ez zuen espero zena lortu eta hartara beste sail batzuetara hedatu zen kontua; hasieran zerbitzuburu edo atalbururen batek eskatuta (Kulturaren egin zen bezala), baina geroago langile guztiengana zabaldu zen saio hauetan parte hartzeko eskaintza.

Zenbaiten gabeziak ikusi ondoren bi eratako moduluen eskaintza ere egin zen: Erabilera modulua eta Birziklatze modulua. Hasiera batean, erabilera-moduluak hiru urterako proposatu baziren ere, ugari dira oraindik aipatutako moduluotan jarraitzen duten langileak. Izatez, moduluon helburua langilea lanean

euskaraz trebatzea da; hala ere, kontuan hartzen badugu moduluok oso beharrian desberdinak dituen jendez osatuak direla, eta gainera, modulu bereko langileek ez dutela atal berean lan egiten, ulertzekoa da helburu zehatzak lausotuago geratu izana. Gainera, moduluotan parte hartzen dutenek ez dute inolako konpromisorik hartu (praktikan) lanean euskara erabiltzeko.

Hartara, moduluok lanean euskaraz egiteko behar besteko eraginik ez dutela ikusita, beste proposamen bat egin zitzaien langileei: Zerbitzu edo Atal batean, langile guztiek edo gehienek interesa izanez gero, laneko espedienteen zirkuituak aztertu eta lantzeko saioak antolatzea. Horrela, 2005-2006 ikasturtean, Herri Lan Saileko Desjabetzapen eta Ukitutako Zerbitzuen Zerbitzuan, zazpi langilek (zerbitziburua barne) hartu zuten parte ahalegin berri horretan. Helburua: gehien erabiltzen zituzten lan-espedienteak lantzea aitzaki, zerbitzu horretan euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza izatea. Saioetan, astean behin, espedienteen zatiak landu ziren, ahoz eta idatziz. Saioetan bertan eta saioetatik kanpo, euskara ahoz erabiltzea lortu zuten langileek, eta, neurri txiki batean, idatziz ere bai.

Ogasunean bereziki aipatzekoa da Behin-behineko Likidazioen Ataleko likidatzaile batzuek osaturiko taldea; maila onekoak guztiak, eta lan eta harreman-hizkuntza modura erabiltzen dutenak euskara. Hauen eginkizuna, besteak beste, errentaren gaineko aitorpenarekin loturiko errekurtsioei erantzutea da. Talde horretan, beraien lana hain zehatza izanda, errekurtsio horiek lantzeko erabili behar dituzten baliabide linguistikoak, bereziki, landu dira, izan ere, beraien helburua lanean euskaraz egiteko (idazteko orduan, batez ere) behar besteko gaitasuna izatea da, PFEZrekin zer ikusia duen terminologian janztea.

Bide horri jarraituz, EraMi edo Erabilerako Mikroplanak abian jartzea erabaki zen: 2006-2007 ikasturtean, Kultura Saileko Kirola zuzendaritzan eta Udal Kirolaren atalean, interbentzio bi burutu ziren. Eta 2007-2008 ikasturtean, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saileko Erosketen eta Horniduren Atalean ere, interbentzio bat abiatu zen (Honi buruzko informazio gehiago hirugarren plangintzaldian dugu: betetze-egoera/ ikerketa-interbentzioen balantzea).

Orain arteko emaitzak ikusita, iruditzen zait atal elebidunetan EraMi-ak ezartzea oso baliagarria izan daitekeela Erabilera Sustatzeko. Momentuz, lanean jarraitzeko egokia dirudi interbentzioekin hasitako bideari ekitea; betiere baldintza batzuk kontuan hartuta: kideek hizkuntza-gaitasun egokia izan behar dute; langileek atal berekoak izan behar dute eta elkarrekin egin behar dute lan; eta taldeko arduradunak ere parte hartu behar du. Talde horietako langileek, ahal dela, ez dute postua aldatu behar interbentzioak dirauen artean.

Interbentzio-proposamenak parte hartuko dutenekin adostu behar dira. Ondo zehaztuta geratu behar dira urte horretarako egitekoak zeintzuk diren eta bakoitzak hartuko duen konpromisoa zein den; horrela, etorkizunean era errazean neurtu ahal izango da helburuen betetze-maila, eta, hein berean, egokitzapenak errazago egingo dira.

Orain arteko Erabilera Sustatzeko Planeko Moduluen eraginkortasunaz gogoeta egitea merezi du: zein eratako moduluak, zenbateko iraupena, zer lortzeko... Azken aldian bi eratakoak ditugu: birziklatzekoa eta erabilera sustatzekoa.

Birziklatzekoa, bereziki, hizkuntzarekin kontakturik izan ez eta lortutako maila galdu duten horientzakoa da. Baloratu egin beharko litzateke modulu hauek maila berreskuratzeko baliagarriak diren ala bestelako jardunik behar den. Kontuan hartu behar dugu, gainera, birziklatzeko modulua egiten duten horiek, lanean euskaraz hasten ez badira, gerora ere maila galdu egingo dutela; hortaz, birziklatze hori erabilerari lotua izan behar da.

Bestetik Erabilera Sustatzeko moduluak planteatzekotan, guztientzat interes orokorreko diren inprimaki edota idazkiak landu litezke; betiere, helburu eta epe argiak jarrita. Aurrera begira, Aldundia trebakuntza On-line egiteko aukera aztertzen ari da, hain zuzen ere, guztientzako interesekoak izan daitezkeen inprimaki eta idazki horiek lantzekoa. On-line trebakuntza egokia izan daiteke hizkuntza eskakizuna atera berri duen ororentzat; laneko hizkera teknikora egokitzeko zubi gisa. Edozein kasutan, trebakuntza hau egiteak, bestelako ikastaroak egiteak dakarren bezala, nolabaiteko meritua onartzea ekarri behar du, bestela alferrik ari gara.

Balorazio orokorra

Atalez atal Bizkaiko Foru Aldundian egindako planek zer eman duten eta zer eman lezaketan aztertu ondoren, egoeraren azterketa egin behar dugu jakiteko non gauden, eta nora iritsi nahi dugun. Horretarako, batetik barne diagnostikoa egingo dugu: planaren ahuleziak eta indarguneak identifikatuko ditugu; eta bestetik, ingurunearen azterketa: mehatxuak eta aukerak identifikatuta.

Ahuleziak

Helburuak

- Helburu Nagusia euskara gehiago erabiltzea da; hala ere bitarteko helburuak falta dira.
- Jarritako helburuak hain orokorrak izanda; ez dago neurketarako tresna egokirik.
- Komunikazio hutsunea: langileek helburuak ezagutu ere ez dituzte egiten; zaila da, hortaz, pentsatzea, helburuok lortze bidean inongo ahaleginik egingo dutenik.

Atal elebidunak eta derrigorrezko datak jartzeko irizpideak

- Izendapena baino ez da egin, ez zaie erabiltzeko konpromisorik eskatu.
- Atal elebidun izendatu izanak ez dakar berarekin hizkuntza ohituren aldaketa.
- Ez da mahai gainean jarri salbuetsita dauden langileekin zer egin behar den: 45 urtetik gorakoak, hizkuntza ikasteko gaitasunik ez dutenak, lanpostu espezifikoa dutenak... Zein neurri hartu behar dira horiek integratu ahal izateko?
- Diputatu, zuzendari eta berauen idazkariak ez dute derrigortasun datarik.

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

- Komunikazio hutsunea: irizpideak eman ematen dira, baina langileek eta herritarrek ere ez dituzte ezagutzen.
- Ez da inolako neurririk hartu ikusteko, batetik, irizpideok bete diren; eta bestetik, bete ezean, egoera aldatzeko zer egin daitekeen.
- Ez dago irizpideak bete daitezen zainduko duen arduradunik.

Hizkuntza gaitasuna: jarduera plana

Hizkuntza-trebakuntza

- Hizkuntza eskakizuna izateak ez du bermatzen euskaraz lan egiteko gaitasuna.
- Langile askok eskakizuna lortzean zuen maila galdu egin du.
- Langile guztiei ez zaizkie aukera berberak ematen, lan kontratuaren arabera edo lan eginkizunen arabera da kontua.

Euskararen erabilera Sustatzeko Plana

- Behar bezalako neurketarik ez da egin. Ez dago datu zehatzik eta horrek izugarri zailtzen du zuzentzeko neurriak jartzea; intuizioz jokaten da gehiegitan.
- Moduluetan jarri da indar handiena. Zerbitzu eta atal gutxi batzuetan baino ez da bestelako proposamenik egin.
- Moduluotako taldeen antolakuntza. Taldeak antolatzeko irizpideen artean daude: zerbitzu eta atal berekoak izatea, langileen artean maiztasunez interakzioa izatea, eta, antzeko euskara-maila izatea. Kontua da, askotan, taldeak ez direla behar bezain homogeneousak; eta bereziki langileen artean interakziorik ez badago, edo lan-funtzioak osagarriak ez badira, zaila da guztien interesei erantzutea eta hizkuntza-jokabideetan eragitea.
- Iraupena. Erabilera-moduluak talde bakoitzean hiru urterako baino ez baziren planteatu ere, ez da bukaera, ez helmuga argirik markatu.
- Konpromisorik ez. Egiatzko orduan, langileei saioetara joatea beste konpromisorik ez zaie eskatzen; horrela, nekez lortuko da lanean erabiltzeko konpromisoa langileek, beren kabuz, hartzea.
- Euskararen Erabilera Planaren eragina oso txikia izan da. Izan ere, gehikuntza antzekoa izan da erabilera-taldeak dauden lekuetan zein erabilera-talderik ez dagoen lekuetan.
- Birziklatze-moduluari dagokionez, asteen bi edo hiru saio eginda, ez dirudi erabilera-prozesuan aurrera egin daitekeenik; horixe da trebatzaileen iritzia. Gainera, giroak ez die laguntzen modulu honetan parte hartzen dutenei inguruko langile euskaldunekin euskara erabiltzen.

Indarguneak

Helburuak

- Plangintzaldiz plangintzaldi xede nagusia argi markatu da: normalizazioa; baita bitartekoak ere: trebakuntza eta erabilera sustatzea. Aldundiak bere gain hartu ditu zeregin horiek.
- Egoerari egokituz joan dira helburuak: hasieran lehenengoan jarri zen pisu nagusia eta orain bigarreanean.

Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko eskaera

- %60 ataletik gora elebidun dira; eta derrigortasun data duten lanpostuak ere hor nonbait.
- Lan euskaraz egin ahal izateko, derrigortasun data gehienak 3.HE dutenei dagozkie.
- Administrazioa, teorian, prestatuago dago euskara lan hizkuntza ere izan dadin.

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

- Urrats garrantzitsuak eman dira dekretuen bidez euskaraz egin nahi duten herritarren zein langileen eskubideak babesteko.

Hizkuntza gaitasuna: jarduera plana

Hizkuntza trebakuntza

- Trebakuntzaren bidez urte hauetan langile askok lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna lortu du: %50 inguruk.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

- Egia da, honelako taldeak antolatu diren zerbitzuetan, nahiz eta langileen lehen hitza gaztelaniaz izan, norbait euskaraz zuzentzen zaienean, zuzenago, jariotasun gehiago eta ziurtasun gehiagoz erantzuten dutela. Hau da, langile horiek euskaldun pasiboak dira, baina lehen, ez ziren horretara ere heltzen.
- Birziklatze-moduluari dagokionez, langileen balorazioa ona da: hizkuntza-gaitasuna ez galtzeko, maila apaleko elkarrizketak izan ahal izateko, eta oso testu errazak idatzi ahal izateko balio omen du.
- Erabilera Mikroplanak abian jarri diren ataletan emaitzak onak dira: badirudi bide egokira hurbiltzen ari dela Aldundiko plana. Plangintzaldi berrian ere bide horri ekiteko asmo argia agertu du.
- Interbentzio-proposamenen diseinuan langileek beraiek ere parte hartzeak proposamena bereganatzea dakar; eta hortaz, gero zailagoa dirudi planean adostutakoa ez betetzea.

Mehatxuak

Helburuak

- Euskaren alorrean, oraindik ere, alderdikeriak dira nagusi.
- Administrazioaren normalizazioa lortzeko gizarte osoaren normalizazioa ere lortu egin behar da; administrazioa ez da isla bat. Gizartean, ordea, urratsak astiro doaz.
- Gizarte osoak ez du bat egiten helburu hauekin; ezta Aldundiko langile guztiek ere: sektore batzuek erresistentzia gogorra erakusten dute eta ez da sektore hauen iritzia aldatzeko lan egiten.
- Planean bitarteko helbururik jarri ezean, lorpenez ere ezin da hitz egin; horrela, langileek, egindako ahaleginak gorabehera, inongo fruiturik ikusi ezean, frustraziorako arriskua dago.

Atal elebidunak eta derrigorrezko datak jartzeko irizpideak

- Elebidun izendatu diren ataletako langileek ez dute euskarenganako behar adinako kontzientziarik. Euskara erabiltzea ez dute beharrezkotzat jotzen.
- Kontuan izan behar da administrazioko langileen batez besteko adina 47 urte ingurukoa dela; gehienak gaztelania hutsean lan egin dutenak orain arte, eta horien artean batzuk salbuetsita daudela. Neurri berezirik hartu ezean, hauek gaztelaniaz egiten jarraituko dute eta hizkuntza ohituren aldaketarako oztopo izan daitezke.
- Agintariak ez badute euskararen erabileran eredu egokia ematen, zail izango da administrazioko langileek erabileran aurrera egiteko beharrezko ikustea.

Hizkuntza ofizialak erabiltzeari buruzko irizpideak

- Momentu honetan legeek ez dute euskararen ofizialtasuna behar bezala babesten.
- Gehienetan laneko bitartekoak (informatika programak, etab.) ez daude prestatua euskara lan hizkuntza izan dadin; are gehiago, oztopo dira.
- Langile askok ez du irizpideekin bat egiten.

Hizkuntza gaitasuna: jarduera plana

Hizkuntza trebakuntza

- Euskara ikastea zama moduan hartzen da. Ez da lanerako beharrezko trebakuntzatzat jotzen.
- Krisi garaian euskarak jasotzen ditu, inbertsio aldetik, lehen murrizketak.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

- Erdararekiko joera. Kontuan izan behar da langile askok lehenengo sozializazio-prozesua gaztelaniaz burutu duela, gaztelaniaz bizi direla, eta beste

aukerarik irudikatu ere ez dutela egiten. Hizkuntza-jokaeretan eragitea, horrelakoetan, benetan zaila da.

- Langile askok ez du ikusten zerbitzua euskaraz emateak inolako baliorik duenik; are gehiago, euskaraz jardutea zama gisa hartzen da, oztopo gisa: sarritan, euskaraz egindako lana bueltan datorkie, espediente horren zirkuituan euskara ulertzen ez duen baten eskuetara heldu delako (nahiz eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideetan halakorik ez den onartzen).
- Euskara ikasteko motibazioa, langile gehienek kasuan, instrumentala da: promozionatuak izateko. Ondoren, erabilera-planean parte hartzeko motibazioa euskara-mailari eutsi nahi izatea izan ohi da, besterik gabe.
- Administrazioaren inplikazio falta: hizkuntzari ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen, eta, bigarren, edo hirugarren mailan geratzen da. Ez du ardura lana zein hizkuntzatan egiten den; egitea nahikoa da. Arduradunek, euskararen erabileran eredu izan beharko luketen arren, sarritan, ez dute hizkuntza-eskakizunik, eta berauek dira gaztelania lehenesten dutenak.
- Langileen mugikortasuna. Zenbait sailetan arazo bihurtu da hizkuntza-egoera bera ere egun batetik bestera aldatu egiten delako. Honek esku-hartze edo interbentzioen eragina kolokan jartzen du.

Aukerak

Helburuak

- Ahaldun nagusiak euskararen normalizazioa bultzatzeko konpromisoaren berri eman zuen. Aldundiak ikastaroak antolatu ditu, planak diseinatu eta beharrezko baliabide guztiak erraztu ditu. Plangintzaldi berrian bi hizkuntzen erabilera bermatzeko borondatea azaldu da, bai zerbitzu-hizkuntza moduan (herritarrek zerbitzua, gutxienez, hizkuntza bietan jasoko dute, ahoz zein idatziz), bai lan-hizkuntza moduan (langileek beraiek ere aukeratu ahal izango dute).
- Euskararen aldeko mugimenduek lan handia egin dute azken aldian euskararen aldeko jarrera ideologia politikoetatik bereizteko eta eskubideen arloan kokatzeko; gizartean ere ikuspegia aldatzen hasi da, era berean Aldundian bertan.

Atal elebidunak eta derrigortasun datak jartzeko irizpideak

- Atal elebidunak mikroplanak abian jartzeko eremu egokia izan litezke.
- Langileen artean kontrako jarrera dutenak indarra galtzen hasi dira.

Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko irizpideak

- Hizkuntza eskubideen borrokan urratsak eman dira.
- Administrazioa zenbat eta euskaldunagoa izan, orduan eta herritarrengandik hurbilago izateko aukera izango du.
- Datozen belaunaldiek barneratuago dute Administrazioak euskaraz egin behar diela.

Hizkuntza gaitasuna: jarduera plana

Hizkuntza trebakuntza

- Ezagutza-maila asko gehitu da Aldundian azkeneko urteetan: langileen %50 inguruk egiaztatu du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna, eta, horrek euskara erabili ahal izateko aukerak zabaldu egiten ditu.
- Gaur egun langile gehienek egin ez arren, zer edo zer ulertzen dute.

Euskararen Erabilera Sustatzeko Plana

- Orain arte egindako interbentzio eta mikroplanetan, argi ikusi da langileek ikusten dutenean euskaraz lan egiteko oztopo handirik ez dutela, errazago eta gehiago egiten dute: konfiantza eta ziurtasun handiagoa dute euskaraz aritzeko.
- Azken urteetan ikasketak euskaraz egin dituen hainbat langile hasi da lanean Aldundian. Langile horiek inongo oztoporik gabe euskaraz aritzeko gaitasuna dute, eta gainontzekoen artean euskararekiko jarrera eta portaera aldatzen lagun dezakete, gaitasun hori behar bezala aprobetxatuz gero.
- Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute zerbitzua euskaraz; oraindik gizartearen presioa nahikoa ez bada ere, garrantzitsua da goranzko joera hori.

6. Azken gogoetak

Abiaturuak

Orain arte egindakoa gutxienekoetan jarduteko nahikoa izan da; aurrera egiteko, baina, apustu gogorragoa egin beharko da. Aurrera begirako urratsak oinarri sendoen gainean eman behar dira:

- Euskara lehenetsuneko hizkuntza eta ezagutu beharreko hizkuntza izan behar da.
- Gaztelania hizkuntza ofizialkidea izango da.
- Administrazioa zeharo euskaldundu behar da.
- Euskal hiztunen hizkuntza eskubideak bermatu egin behar dira.
- Euskararen erabilera babestu eta bermatu egin behar da; erabateko normalizazioa lortu arte.
- Euskararen erabilera ofizialari eraginkortasuna eman behar zaio: euskaraz idatzitako edozein dokumentu pribatu zein publiko baliozkoa izan dadin.

Planifikazioa

Inongo helbururik lortu nahi badugu, planifikazioari ekin behar zaio; planifikazio osatua eta borobila (erdizka arituta ezer gutxi lortuko dugu). Honetan lehen urratsa eta ezinbestekoa **diagnostikoa** da; izan ere, plangintzari ekin aurretik, garrantzitsua da egoera zein den ezagutzea, horren arabera finkatuko baititugu gure zereginak. Diagnostiko horrek ez digu xede nagusia baldintzatuko (edo, agian, bai), baina, bai helburu estrategikoak. Bera izango da abiapuntua, oinarria eta lan-tresna, eta hortaz, berak zehaztuko du ibilbidea.

Diagnostikoa **datu bilketa**rekin eta datu hauen **interpretazio**arekin lotuta dago. Datu bilketa hori zehatza eta objektiboa izan behar da. Datuak egonkortasunez eta eraginkortasunez jaso eta aztertuz gero, ondorengo lanen arrakasta ia ziurtaturik dago. Horretarako adierazle sistema fidagarri eta baliagarria aukeratu behar da, eta egoeraren berri eman ez ezik, horren bilakaera ere hartu beharko du kontuan. Datu objektiboak jasotzeaz gain esku-hartzean lagungarri izango diren eragileak identifikatu beharko dira (indar, sendotasun eta aukerak) eta oztopo izango diren ahultasun eta mehatxuen analisia ere egin beharko da.

Diagnostikoa egin ondoren, erabilera planari ekin behar zaio: lehenengo, **plan estrategikoa** diseinatu behar da (epe baterakoa: Aldundiaren kasuan bost urte ingurukoa), eta, ondoren, **kudeaketa plana** (urtez urteko zehaztapenekin).

Plan estrategikoa egitean epe horretan zein esparrutan eragin nahi dugun eta zer lortu nahi dugun erabaki beharko dugu. Esparruak (hizkuntza gaitasuna, ahozko komunikazioa, idatzizko komunikazioa, itzulpenak... jada, definituak daudenak) eta helburuak zehaztu beharko ditugu; helburu bideragarriak eta neurgarriak, zenbatzeko modukoak. Helburuok adierazle bati lotuta izan beharko dute, gero, balorazioa egitean betetze-maila erraz neurtu ahal izateko.

Kudeaketa plana egitean urtez urteko ekintzak zehazteari ekingo diogu: ekintza horiek helburu eta adierazleei lotuta izango dira, jakina.

Honetaz gain, azken aldian egokitzat jo izan da **langileen plana** egitea. Ez da nahikoa, orain arte bezala, foru langileak euskalduntzea; jakina, orain arteko trebakuntza-plangintzari jarraitu egin beharko zaio. Baina, erabilera eragiteko, gaitasunaz gain, bestelako urratsak eman behar direla nabaria da: horien artean, langileen planak. Langileen planak egiteko ere, lehenbiziko fasea diagnostikoa izango da: azterketa komunikatiboa (hizkuntza-gaitasuna, zer lan egiten duen, lan-jardunen izaera komunikatiboa, maiztasuna...). Ondoren, langilearekin adostu egin beharko dira helburu batzuk eta horretarako behar duen prestakuntza, trebakuntza eta baliabideak eskura jarri beharko zaizkio. Ahaztu gabe, fase bakoitzaren ondoren egin beharreko ebaluazio eta jarraipena (beti ere langilearekin batera eta beronen adostasunarekin); hurrengo faserako helburuak finkatu ahal izateko ezinbestekoak.

Atalez ataleko planak, mikroplanak ezarri diren unitateetan baino ez dira egin orain arte. Dena den, egoki litzateke gainontzeko ataletan diharduten langileekin ere, euskaraz lan egiteko gaitasuna eta gogoia dutenekin, erabilera bultzatzeko ekintzak antolatzea: atal bakoitzeko indarguneak eta aukerak, mehatxuak eta ahultasunak aztertu ondoren, ezagutza (terminologia, prestakuntza...), erabilera (idatzizkoan edo ahozkoan) eta motibazioa sustatzeko zenbait urrats eman ahal izango dira, zalantzarik gabe; helburuak mikroplanak ezarri diren ataletan baino xumeagoak badira ere. Horretarako, jakina, langileekin adostu beharko genuke egin beharrekoa (langileen planak).

Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak

Euskarak ofiziala izan behar du; hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko irizpideetatik legetara pasatu behar da. Bide honetan, beharrezkoa izan daiteke Euskara Saila sortzea. Honek euskarari dagokion maila aitortuko lioke; ez luke egon behar, gaur egun dagoen gisa, Kultura Sailaren mende. Euskarak sail guztietan du eragina eta zehar lerro moduan kokatu behar da barnera begira. Berezko sail izateak gizarteari begirako lana erraztu egingo lioke.

Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko indarrean dauden irizpideak, , 22/2009 Foru Dekretuaren bidez emandakoak dira. Dekretu honetan ez da aurreikusten sail bakoitzean egokitzapenak egiteko aukerarik; egokia litzateke, ordea, irizpide orokor horiek sail bakoitzaren egoerara moldatzea. Horretarako, batzorde bat eratu beharko litzateke, eta, batzorde horretan saileko arduradun bat (tamainaren arabera; handia izanez gero, ataletako arduradunak ere kontuan har litezke), langileen ordezkaria/ak (sindikatuetakoa ordezkariak?) eta euskara teknikaria izan beharko lirateke, behintzat.

Batzorde honek izan behar du saileko irizpideak erabakitzeko ardura eta baita jarraipena egitekoa ere. Horretarako, jarritako helburuen arabera adierazleak aukeratu beharko lituzkete (barnera begirako agiriak, kanporakoak, idatziz egindakoak, ahozkoan egindakoak, itzulpenetara bidalitakoak...) eta urtez urteko jarraipena egin (epea ere, beraiek adostu beharko lukete).

Itzulpenetarako irizpideei dagokienez, egun, sail bakoitzaren eginkizuna da itzulpen beharrak zentzuzko neurrira ekartzeko estrategiak aztertu eta ezartzea; esaterako: euskaraz jasotzen diren dokumentu guztiak ez dira besterik gabe itzuliko. Horretarako izapidetu behar duenak ez duela behar besteko gaitasuna

egiaztatu behar da eta orduan, edukiaren laburpena egingo da (osoa itzultzea ezinbestekoa ez bada). Gainera, ahal den neurrian, administrazio-agiri elebidunak sortuko dira eskura diren bitartekoak erabiliz (hizkuntza eskakizuna egiaztatutik duten langileak, trebatzaileak, eredu normalizatuak, informatika tresnak...). Baina guzti honen jarraipenik egiteko batzorderik ez dagoenez, zail da irizpide egokiak jarraitzea (are gehiago, ez dakigu irizpiderik jarraitzen den ere).

Irizpide hauek sail bakoitzera egokitzea eta betetzen diren ala ez ikustea ere aurretik aipatu dugun batzordearen ardurapean izatea litzateke egokiena; bestela, aurretik esan den legez, alferrik dira irizpideok.

Aldaketan eragin dezaketen aldagaiak

Giza-faktoreak

Behin eta berriro esango dut, akitu arte, ez dela nahikoa hizkuntza-gaitasunean eragitea, edota baliabideak euskaraz jartzea; horrekin ez dugu lortuko administrazioko langileak euskaraz egitea. Edozein pertsonak hizkuntza batean edo bestean aritzea aukeratzen duenean, egiten duen hautua ez da uste dugun bezain askea; badaude hizkuntza-ohituretan eragiten duten hainbat faktore eta ohituretan eragiteko faktoreak identifikatu eta landu egin beharko ditugu.

Faktore horiek bi taldetan sailka litezke: batetik, ingurutik datozenak: euskaldunen presentzia, ingurukoek euskararenganako duten jarrera, euskarak duen prestigioa... eta, bestetik, norbanakoarenak berarenak: euskararenganako lotura afektiboa, ezagutza maila...

Inguruari gagozkiola, ezagutzan gora egiteak inguru egokia lortzen lagunduko du; baina, lehen esan bezala, horretaz aparte, bestelako baldintzak ere sortu beharko dira: aldeko jarrera, bitarteko egokiak, legearen bermea, errekonozimendua eta balorazioa... Eta hauek, aldi berean, motibazioan, eta, ondorioz, norbanakoen jarreran eragin egingo dute.

Laugarren plangintzaldi honetarako hizkuntza jokaera-aldaketei nola edo halako errekonozimendua egin beharko litzaiekeela (euskaraz aritzen direnei, jakina) aipatzen da; ez da, ordea, zehazten zein eratakoa izan daitekeen errekonozimendu hori. Horretarako, planaren jarraipena egingo duen batzordeak, Hizkuntza Normalizaziorako Batzorde Nagusiak, zehaztu egin beharko lituzke errekonozimendu horren nondik norakoak.

Euskarari eta euskaraz lan egiteari balorazioa eta prestigioa emateko bide izan daiteke kalitatearen K: ugari dira Aldundian kalitatearen Q-a lortu duten atal eta zerbitzuak, baina horietan euskarari ez zaio inolako baliorik eman. Q deitu edo K deitu, izena gutxienekoa da; kontua da euskara eta zerbitzuaren kalitatea lotuta egon beharko lirakeela.

Bestetik "hizkuntza-bultzatzaile" informalen akuilu-lana ere oso kontuan hartzekoa da; izan ere, badira Aldundian euskara-maila ona duten eta euskararen aldeko jarrera duten langileak, guztien artean aski ezagunak, eguneroko jardueran euskarari lehentasuna ematen diotenak, eta ingurukoak motibatzen eta zirikatzen lan ikaragarria egiten dutenak. Lidertzat jo ditzakegun horiekin lan berezia egin beharko litzateke: beharbada erabilera-planetan partaide aktibo ginaz.

Norbanakoen faktoreei dagokienez, aipatu dugu jada ezagutza-maila zein garrantzitsua den: hau da, langileak euskaraz eroso aritzeko besteko maila izan

behar du eta 2.H.E. izateak ez digu sarritan hori bermatzen, behintzat, ahozko mailan (zer esanik ez 1.H.E.). Hortaz, bete beharreko hizkuntza eskakizunak zein diren erabakitzeke orduan, gogoan hartu beharreko kontua dugu hau.

Planaren diseinua: parte hartzailea eta dinamikoa

Orain arte planaren diseinuan Hizkuntza Normalizazioko teknikariek baino ez dute parte hartu; gainontzekoak jasotzaile hutsak izan dira. Aurrerantzean egin beharreko planetan iruditzen zait egokiagoa litzatekeela plana egitean, planak eragingo dituen horiek beroriek eragile ere izatea. Planaren diseinuan inplikaturako pertsonak ez lukete “plan tekniko” baten objektu hutsak izan behar. Beren errealitatearen protagonistak izateko eskubidea dute, eta beraien nahiak, oztupoak, sentimenduak... kontuan hartzen ez badira, plangintza arrotza egingo zaie eta ondorioz ez dute gauzatzeko energiarik inbertituko.

Pertsona hauek, gainera, parte izan behar dute prozesu osoan: diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan. Prozesu osoak parte hartzailea izan behar du.

Garrantzitsua da, hasierako fasean, inplikaturako pertsonen baloreak eta interesak aztertzea eta Aldundiak dituen balore eta interesen norabide berean jartzea. Helburuak bateratu egin behar dira.

Aurretik esan dugun legez, xede nagusia badugu: Bizkaiko Foru Aldundian euskara lan eta zerbitzu hizkuntza izatea. Behin inplikaturako pertsonekin xede horretan bat egindakoan, tarteko helburuak zehazteari ekin behar zaio; baita bitartekoak, prozedurak eta epeak ere. Horretarako, lehenik eta behin, egoeraren diagnostikoa egin beharko litzateke, hortik sortuko baitira helburuak. Diagnostikoak erakutsiko digu zein eratako interbentzioak egin behar diren. Hutsuneak atzeman eta arriskuak eta mehatxuak aurreikusi eta gainditzeko neurriak hartu ahal izango ditugu.

Diseinuak parte hartzailea izateaz gain, dinamikoa ere izan beharko luke; egoera aztertu aldi-aldi eta egin beharreko egokitzapenak egin.

7. Informazio iturriak

- Soziolinguistika Klusterra (2008-11-05) Eralan ikerketa-proiektua. *Lan munduan nola eragin erabileran?* Bizkaiko Foru Aldundia: Kirola euskaraz.
- Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren II. Plangintzaldia.
- Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren III. Plangintzaldia (BAO, 89. zk. 2005, maiatzak 12, osteguna)
- Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren IV. Plangintzaldia.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 43/2007 Foru Dekretua, martxoaren 13koa, hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena Bizkaiko Foru Aldundiaren jardura esparruan (BAO. 54. zk. 2007, martxoak 16, ostirala)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jardura esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena (BAO. 38. zk. 2009, otsailak 25, asteazkena)
- Gipuzkoako Diputazioan 2004an onartutako 21-04 Dekretua